

**Igandean hartuko du Japoniako bidea Urtasunek**



**Kirolak >> 13**

**Etzi Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken final laurdena Lakuntzako kultur etxean. Arikoden seikoaren artean Lazkoz dago**



**Kultura >> 15**



**Sakanako euskaltzaleak bilerara deitu dituzte**

Bihar, 10:30ean, Etxarriko kultur etxean

**>> 5**

**Elikadura burujabetza sustatzeko Karta**

**>> 7**

**Zazpi odol-maileri aitortza Etxarrin**

**>> 6**



**Errausketa jasoko ez duen hondakin planaren alde**

**>> 9**



# ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



## Izai

Zorionak etxeko artistari!! Dagoeneko 6 urte!!! Oso oso ondo pasa eguna ta disfrutau abentura polit honetan... Muxu pila bat etxeko guztien partetik.



## ZORIONAK ANER!

2 urte, Aner! Baguztek aurria gu debei. Bier den bezela ospatu bittau. Hoi bei, palomitek beño, neyo osaba Xabiron hojaldrezko tarta, e hi? Asko nehi diet, Aitz.



## Kimetz

Zorionak morroxko!! Azkenean iritsi da eguna, hainbeste itxaron ondoren...SEI urte! Segi beti bezain jator, maitia. Asko maite zaitugu. Aitaxo, amatxo eta Ixone.

## otsailak

# 20-26

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Zirkoa

**Gran Circo Ideal.** Otsailaren 20an, ostiralean, 18:30ean; otsailaren 21ean, larunbatean, 17:00etan eta 19:30ean eta otsailaren 22an, domekan, 17:00etan, Altsasuko futbol zelaiaren ondoan.

### Magia

**Madiber.** Otsailaren 22an, igandean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean.

### Zinema

**Corazones de acero.** Otsailaren 20an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 22an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Mendi irteerak

**Dima-Balzola.** Otsailaren 22an, igandean, 7:00etan Irurtzundik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendizaleak.**

### Bizikleta irteerak

**Lezamengo sarioa.** Otsailaren 22an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 45 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**Altsasuko inauteriak.** Otsailaren 22ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Diruaren sexua ezkutua.** Otsailaren 23tik martxoaren 8ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren egoera eta datozen erronkak.** Otsailaren 24an, asteartean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hizlaria: Iñaki Moreno.**

**Teresa Garcia, Altsasuko irakasle ahaztua.** Otsailaren 26an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hizlaria:**



Astearte ihoteak irudi ikusgarriak utzi zituen. Ez gorde mozorroa, asteburuan ihote festek segida dutelako.

**Intxorta 1937 kultur elkarte.**

### Bertsolaritza

**Lazkoz, Castillo, Tainta, Olaetxea, Maia eta Terreros.** Otsailaren 22an, igandean, 17:30ean Lakuntzako kultur etxean. **Nafarroako Bertsolari Txapelketa.**

### Bestelakoak

**Inauteri apainketa.** Otsailaren 20an, ostiralean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Pausoka haur eskola, ate irekiak.**

Otsailaren 26an, ostegunean, 16:30ean Uharte Arakilgo Pausoka udal haur eskolan.

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutako Plataforma.** Otsailaren 20an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 20an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranzako plazetan, elkarretaratzeak.

**Sakanako euskalgintzaren batzarra.**

Otsailaren 21ean, larunbatean, 10:30ean Etxarri Aranzako kultur etxean.

**Eduernekin bat, argazki erraldoia.** Otsailaren 21ean, larunbatean, 13:00etan Altsasuko plazan.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 22an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Muntai polizialik ez. Epaiketa politikoak eten.** Otsailaren 25ean, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean. **Eduernekin bat.**

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**beleixe** <sup>107.3 FM</sup> *online*  
www.guaixe.eus

*Piztu irratia!*

## ASTEBURUKO AGENDA

### ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,  
Jose Mari Agirre, Pablo Urtasun,  
Ezkurdia-Zabaleta, Manolita Thunders...

Esataria: *Alfredo*

&gt;&gt; Altsasu

# Ahaztutako Teresa Garcia Hernandez

**Ostegunean, 19:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean Altsasuko irakasleari buruzko hitzaldia izanen da**

Altsasuko mugimendu feministak Teresa Garcia Hernandezi buruzko hitzaldia antolatu du heldu den ostegunerako. Arrasateko Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak izanen dira hitza hartuko dutenak. XIX. mendeko azken bi hamarkadetan Altsasun irakasle izandako emakume hari buruzko argibideak emanen dituzte hainbat ikuspegietatik. Beti ere, Garcia ahanzturaren zulotik ateratzeko.

Kultur elkarteko Julia Mongek argitu digenez, Narcisa Teresa Garcia Hernandez 1860ko lastailaren 29an jaio zen, Zaragozan. Familia burges bateko alaba baka-rrazzen. Hiru urtezituela bere familia Iruñera lekualdatu zen, bizitokia Gaztelu plazan jarritz. Militarren arropak saltzeko negozioa jarri zuten.

Garciak haurretan Pablo Sarasate izan zuen piano irakasle. Etxeko negozioari segida eman beharrean irakasle-ikasketak egin zituen. 21 urterekin hasiko zen kla-

seak ematen, Altsasun. Irakurza-letasun handia zuen Garciak. Egiten zituen eskulanetan oso arduratsua zen. Antolatzaile ona, txukuna eta oso diziplinatua omen zen. Baita liberala eta oso fededuna ere.

## Batera

Mongek azaldu digenez, 1881eko lastailean Altsasuko Udalak irakasleak kontratatzeko oposizio deialdia egin zuen. Hara aurkeztu zen Garcia. Abenduaren 11n jakin zuen nesken irakasle kargua berea zela. Oposizio berera aurkeztu zen baita Felix Arano Saez de Adana, gerora Garciaren senarra izanen zena. Abenduaren 4an jakin zuen Aranok udalaren irakasle kargua hartu zuen. Biak ere hurrengo urtean Labadero eraikinean mustuko ziren eskoletan ariko ziren klase ematen 3 eta 15 urteko neska-mutilei. Aranok, gainera, neguan helduekin aritu behar zuten.

Arano, liberala eta ez sinestuna, hiru urte zeramatzan Altsasun, 1879ko otsailaren 9an bitarteko irakasle lanean hasia bai-



Teresa Garcia Hernandez.

tzen. Udaletxean, Gure Etxea eraikinean, zegoen eskolan aritu zen. Arano Agurainen jaio zen 1857ko azaroaren 20an. Familia oso xume-koa zen eta Luisa izeneko arreba

zuen. Agurainen irakasle izan zuen Marcos Sagastik bere biografian Aranoren jakinduria, zintotasuna, lanerako gogoia eta izaeraren ontasuna nabarmendu

zituen. Baita hizlari bikaina zela, idaztea ez zuela gogokoa eta, batez ere, harreman pertsonalak gogoko zituela. Pertsona adoretu eta dinamiko gisa deskribatu zuen Arano Sagastik, baina diziplina gutxikoa. Ibiltaria omen zen.

Garcia-Arano irakasle bikoteak bi hamarkada egin zituzten Altsasun lanean. Orduan jakin zuten Pedro Viterik Arrasaten Europako pentsamendu ilustratuan oinarritutako Biteri eskola sortuko zutela. Eskola libre eta laikoak. Egitasmoaren sustatzailearen ideia berri-zaile eta pedagogia irizpide berak zituztenez aurkeztearabaki zuten. Oposizioetara aurkeztu ziren beste 245 gizon-emakumerekin batera. 1902ko apirilaren 23 irakasle aukeratu zituzten eta Garcia-Arano bikoteak plaza bana eskuratu zuten.

Altsasuko Udalak 1902ko gari-laren 29an ordaindu zion azken soldata bikoteari. Aranok 23 eta Garciak 21 urte egin zituzten Altsasun irakasle. Bizitza guztia irakaskuntzari eskaini zioten. Garcia, 64 urte zituela, 1924ko apirilaren 26a hartu zuen erretiroa. Aranok 70ekin, 1927ko abenduaren 1ean.

## Metodo berriak irakaskuntzan

Mongek azaldu digenez, bikotea "hezkuntzari kutsu erlijio-soa kentzearen aldekoa zen. Haien ustez arrazoia zegoen iluntasunaren gainetik". Kanpo diziplinaren ordez gela barruko betebeharrak morala sustatu zutelagaineratu du: "hezkuntza ezin da zigorretan oinarritu, zuzenketan eta erreforman baizik. Irakasleak eta ikasleak arteko elkarrizketa familiar eta informalean uste osoa zuten. Eta ikasleengan gauzak aurkitzeko izpirituak piztu nahi zuten".

Hala, ikasketak programan antropologia, teknologia, gizarte zientziak, ekonomia, artea, marrazkia, kantua eta orratz lanak sartu zituzten. Enarak etorri eta joaten zirenean festa ematen zieten ikasleei. Poesia errezitaldiak sustatzen zituzten, buruko kalkularekin batera. Boluntarioen bitartez abstemioen klubak sortu zuten.

Irakasle hasi ziren garaiak ekarri dizkigugogora Mongek: "botere zibilaren aurretik apaiza jarzen zuten kontserbadoreen eta estatu eta irakaskuntza arloan apaizak ez nahastearen aldeko ziren liberalen artean borroka ideologikoa oso presente zegoen gizartean". Zehaztapena egin nahi izan du Mongek: "liberalak ez zeuden erlijioaren kontra, klerikalismoaren kontra baizik".

## Garcia, garaiko feminista

Gaur egun generoen arteko berdintasun faltaz ari bagara, XIX. mendearen bigarren erdialdean egoera askoz ere okerragoa zen. Elizaren eraginpean zegoen irakaskuntza emakumezkoak bigarren mailan zeuden. Hezkuntzaren bidez emakume "ezkondu, etxeko erregina, ama ona, errukierra eta emazte ona" lortu nahi zirela aipatu digu Mongek. 1889ko Kode Zibilia ekarri du gogora: "emakume ezkonduak ez duten autonomia pertsonalik eta haien ondasunak eta diru sarrerak senarrak administratu behar zituen".

Garai hartan aberatsen alabek soilik zuten gizartean parte hartzeko aukera ongintza edo karitate elkarte bidez. Kargu publikoetatik baztertuta eta boto emateko eskubiderik gabe (Espainian 1933ko azarotik indarrean dago). XIX. mende akaberan sortu zen mugimendu feministaren aurreko eskaerako bat, boto eskubidearekin batera, emakumeen irakaskuntzarako sarbidea izan zen. "Testu inguru horretan, emakume gutxi zebilen irakaskuntzan. Garciak eredu emanez aldarrikatu zuen ordura arte gizonezkoendako ziren lanbideetan aritzeko gaitasuna zuela".

## Arano bai, Garcia ez

Garciak garai hartan izandako "irakaskuntza eta senarrarekin izandako eginkizungarrantzitsua" nabarmendu du Mongek. "Diziplina kon-tuetan Garcia Aranoren osagarria zen. Aranok ez zuen gustuko idaztea. Garciagatik ez balitz, Aranok ez zuen idatziz egin zuen ekarpen bakarri idatziko: Eusko Ikaskuntza-ren II. kongresuan, Iruñean 1920ko garilaren 18tik 25era, buru kalkulari buruzko lana".

Mongeraren arabera, "Garciak behar-tzen zuen Arano jasotzen zuen gutun guztiei erantzuna ematera. Arlo pribatuan gelditu da ahulaldietan Garciak Arano laguntzen eta bultzatzen zuela". Garciak irakaskuntzan egindakolana ere "osogor-



deta, ezkutuan" gelditu dela nabarmendu du Mongek; "garai hartan gizonak bakarrik betetzen zituzten kargu publikoak; emakumeak ezarritako ereduak hautsi arrenez

zituzten aintzat hartzen. Horixe gertatu zen Garciarekin". Altsasun itzal ahaztu ezina utzi zuen bikoteak. Aranori udalak kale bat eskaini zion. Ez, ordea, Garciari.

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Larunbatean, ogitartekoak barran

Ongi pasa ihauterietan!

948 467 876 · Altsasu

**MAPFRE** Altsasu

Etxerako aseguruak  
**% 25** deskontua

948 563 354 · jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48 · ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM



astekoa

Benjamin Zufiaurre Goikoebea

barrutik kanpora

AHALDUNduko al gara?

Zer nolako urte polita

Nahiz eta krisi garaian bizi, Mendiak elurrez beteta daude, Azkenean bota du kristona, Eskiatzeko egoera zoragarria benetan; Somporten ibiltzeko aukera denak, Aurreko astean hotza bai, Beste honetan askoz hobea, Elurra bai eta eguzkia ere bai; Baina honek ere kontrakoa du, Aurreko astean palaz pala, Bideak irekitzen ari nintzen; Kotxerik ezin nuen atera ba, Hirurogei cm baziren gutxienez, Jaka inguruan handik ibiltzen naiz eta.

Esaten den bezala "elurrezko urteak", "Ondasun urteak" dira, eta hala bada, Gauza onak etorriko dira, Eta ni itxarotan nago benetan; Bata, Nafarroan aldatetak udarako, Geure Burgostar Printzesa badoa, Dirudienez ezkonduko da ere, Diru hainbat duen "jamonero" batekin; Nork jarraituko du Nafarroa kontrolatzen? Zer nolako Koalizioak izanen dira? Geure berdintasun baldintzak, badute etorkizunik? Eta Madrilen antxetarak arriskuan!! Eta European, latzak beraz gal-tzen!! Tsiptas ingurutakoak garai ederrean etorriak!!

Dena hankaz gora, bide berriak jorrazteko 2015 udaberrietik aurrera.

Gero eta gutxiago falta da 19. Korrika hasteko. Jai giroan euskara indartzea, eta esfortzu fisikoarekin euskararen beharra eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko modu polita da. Jende pilo mugitzen du eta bat egiten dute pertsona, instituzio eta kolektibo askok. Aurtengo Korrikak euskALDUNTzeko gonbitea egin digu honako galderak luzatuz: ezagutzen al ditugu gure ahalmenak? Ba al dakigu zer egiten eta eragiten ahal dugun?

Euskaraz bizitzeko aukera eta eskubidea mugatuta dugun tes-

tinguru honetan, aukeraketa hori areagotzeko gaitasun gehiago izatea eta aurkitzen ditugun oztopoei konponbidea bilatzea esan nahi du AHALDUNTzeak. Euskaraz bizitzeko aukerak gehiagotzeko norbere gaitasunez jabetzea eta horiek erabiltzeko trebetasuna garatzea, alegia.

Gure inguruan aldaketa positiboak eragiteko pertsonak dugun AHALMENaz jabetu. Euskaldun gisa gure duintasuna indarberritu eta protagonismoa indartu, euskaraz bizitzeko aukerak ugaltu. Hori da euskALDUNTzea.

AHALDUNTzearen ondorioak edo dimentsio praktikoa dirazailtasunen aurrean ez uzurtzea, euskaraz bizitzeko nahiari eutsi eta horretan sakontzea, erronka eta helburu berriei aurre egin eta norberarengandik sortzen den gaitasuna determinazioz erabiltzea.

Behar beharrezkoa da euskaldunok AHALDUNTzea, euskaraz bizitzeko egokiera biziagotzeko eta hizkuntzagatiko diskriminazioak sortzen dizkigun oztopoei aurre egiteko.

Jakin badakigu, euskaraz bizi-

tzeko eta Euskal Herria euskalduntzeko norberaren eta taldearen ahalmenean sinetsi eta hori erabili behar dugula.

Korrikak gogoan sortzen duen zirrara, begietan eragiten duen dir-dira eta hanketan ekartzen duen ezinegona euskaldunok gure AHALMENaren indarraz jabetzeko eta norberaren gaitasunaz kontzientzia hartzeko izan dadila. Euskaraz bizitzea sentimenduez ez, bizi modu bihur dadin.

Hizkuntza Eskubideen Behatokia

hara zer dien

Jabekuntza prozesuak eta sare lana

Jabekuntza kontzeptua 80 eta 90 hamarkadetan indarra hartzen hasi zen, batez ere Garapenerako lankidetzaren eremuan. Ondoren, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuneko arlo-

burua. Orduan, Jabekuntza, mainstreaming edo zeharkotasunarekin batera berdintasunaren aldeko ezinbesteko bi estrategia izan dira.

Emakumeen jabekuntzaren barruan hiru botere mota defini daitezke: a) Emakumeak beren mendekotasunaz jabetzea eta beren buruan konfiantza handiagoa izatea (bereko edo barruko boterea). b) Era autonomoan antolatzea, beren bizitzari eta nahi duten garapenera buruz erabakitzea. Botere kolektiboa. (boterea besteekin). c) Mobilizatzea, beren interesak identifikatzeko eta

mugatu eta beren mendekotasuna betikotzen duten harreman, egitura eta erakundeak eraldatzeko (boterea zerbait lortzeko).

Boterea, beraz, ez da batzuk besteak zapaltzea. Ez da zero emaitzako botere batuketa. Ez da egungo jendardean gailentzen den boterea. Harreman simetrikogoa sortu eta batuketa positiboko boterea antolatzea helburu duena baizik. Bestalde, Jabekuntza ez da eman daitekeen ondatsun bat, emakumeak protagonista diren prozesu dinamiko bat baizik. Emakumeen jabekuntza sustatzen duten espazio eta pro-

zesuen hamaika adibide dauzkagu han eta hemen. Baina guztien oinarrian sare lana daukagu.

El Salvadorreko Las Dignas Eztatanda Eskola Feministaren adibidea esaterako, inspirazio iturri garrantzitsua izan da Euskal Herriko jabekuntza eskolen sarean. 2003. urtean hasiera eman zitzaion EHko lehen jabekuntza eskolaren egitasmoari eta ordu-tik sare handitzen ari da. Topaleku eta hausnarketarako gunek dira hauek, praktikotasunetik estrategikora doazen gunek.

Emakumeen Bilgunea

objektibo tik



Alkohol kontsumoaz sentsibilizatzen Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko prebentzio programako teknikariak bihar Altsasun izanen dira. Gure Etxea erai-kinean, 21:00etatik 01:00etara bitartean alkohol kontsumoaren inguruko sentsibilizazio kanpaina aurrera eramanez. Esaten dutenek euren alkohol tasa neurtzeko aukera izanen dute.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten 1.500 karaktere (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.

gora/behera



Ikasleak

Bateko eta bestekoak hainbat proiektutan ari direla erakutsi digute.



Berdintasuna

Generoen artekoa. XIX. mendean ez zegoen eta oraindik ere ez.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitate@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675 KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoebea • zorion@guaixe.net LEGE GORDAILUA: NA-633/1995 TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:





## Zure Guaixe-ko azala

**Astekariko norberaren azal ideala egin, gura bidali eta jasotako guztiak lau aste barru argitaratuko ditugu, 500. zenbakian**

Guaixe astekariak martxoaren 13an 500. zenbakia argitaratuko du. Mugarririk horretara iritsita astekaririk sakandarrei gonbitea luzatu zaie: Guaixe azalak sortzea. Nork berea. Eta edozein teknikarekin eginak: ordenagailua, collagea, koloreetako margoa... Astekarian argitaratuak ikusi nahiko lituzketen albisteak jaso daitezke azal horretan, beti ere, pertsona eta erakundeei dagokien errespetu gordez.

Azal proposamenak martxoaren 9rako, astelehena, 9:00etarako bidali beharko dira gutunak@guaixe.net helbidera. JPG edo PDF formatuan izan beharko dute, Din A4 neurrian eta 200 ppp-ko erresoluzioarekin gutxienez. Azalaren egile edo egilek izen-abizenak gaineratu beharko dituzte. Jasotako azal onenak martxoaren 13ko Guaixeko zenbakian argitaratuko dira. Azal guzti guztiak egun horretan bertan [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)-en ikusgai izanen dira.



## Bi ikertzaile sakandar Zientzia Azokan

**Zientzia Azokan parte hartuko duten gazte taldeei euren proiektuak aurrera eramaten lagundu die**

Elhuyar fundazioak antolatutako Zientzia Azoka 12 eta 18 urte arteko gazteek garatutako proiektuen azoka da; ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa barrutik bizitzeko aukera ematen die. Ikerketa-proiektu bat eta proiektu teknologiko bat egin behar dute. Gazteek apirilko larunbat batean Bilboko Plaza Barrian antolatuko den Zientzia Azokako stand banatan aurkeztuko dituzte. Lana egiteko garaian gazteek ikertzaile profesionalen laguntza jasotzen dute.

Euren laguntza emateko prest azaldu diren 117 ikertzaileen artean bi sakandar daude, biak ere Nafarroako Unibertsitate Publikokoak: Jesus Razkin Lizarraga arbizuarra, Kimika Aplikatua Sailekoa, eta Joseba Aldasoro altsasuarra, natur ingurunearen zientzietakoa. Lehena Burlatako Askatasuna institutuko lau ikaslerekin aritu da. Bigarrena, berriz, Bizkaiko Lauroetako Lauro ikastolakoekin. 162 talde partehartzaileen artean ez dago sakandarririk.



Ikasleak Razkinekin lanean.

## SAKANA

# Euskaltzaleendako bilera deia



Sakandarrak euskaraz bizi nahia prentsaurrekoan adierazten. ARTXIBOA

**Bihar, 10:30ean, Etxarriko kultur etxean. Lehen orduan Kontseiluak apirilaren 25erako Iruñeko Anaitasun antolatutako duen ekitaldiaren berri emanen da. Bigarrenean, berriz, Sakanako euskalgintzaren lehentasunak markatuko dira, alderdiei helarazteko**

Euskaltzaleak bihar batzarrera deitu dituzte Sakanako Euskalgintzaren Bilguneak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak eta Euskal Herriaren Euskaraz-ek. Maiatzeko hauteskundeetara begira euskalgintzak Sakanan eta Nafarroan dituen premiak zehaztu eta alderdiei jakinarazteko asmoz eginen da bilera.

Bi atal ditu deialdiak. Lehenik Kontseiluaren Nafarroako Mahaiak apirilaren 25erako Iruñeko Anaitasun antolatutako ekitaldia aurkeztuko da. "Nafarroan aldaketa giroa dagoela hain maiz entzuten dugun garaiotan, kezka ikusten dugu aldaketa bator gobernu berri bat osa lezaketenez hizkuntza-politikan zer nolako erabakiak hartuko dituzten". Nafarroan euskaraz bizitzaren aldeko ekitaldiak mugarririk izan nahi duela adierazi dute Kontseilutik.

Nafarroako euskalgintzaren elkarlanaren fruitu da apirilko ekitaldia. 2010ean euskalgintzak Nafarroan deitutako manifestazio arrakastatsuen ondoren elkarlanak segitu du. Kontseilutik gogoratzen dutenez, orduan bezala, gaur egun ere indarrean dira "Nafarroako Gobernuaren euskararen kontrako hizkuntza-politika ankerra, gure erakundeak larri zauritzen dituzten dirulaguntzen urritzea edota Deredua zikindu eta zokoratzeko baliatutako Guardia Zibilaren txostenaren moduko adibideak".

Apirilaren 25eko ekitaldiarekin Kontseiluak "nafarrek haien hizkuntzarekin duten atxikimendu handia eta euskalgintzaren elkarlana" erakutsi nahi ditu.

### Sakana

Biharko bileraren bigarren zatian elkartuko direnek ibarrean Sakanako euskalgintzaren premien inguruan hausnartu eta lehentasunak zehaztuko dituzte. Maiatzeko udal hauteskundeak gogoran, lehentasunak Sakanako alderdiei helaraziko dizkiete, "euren programetan eta ildoetan kontuan har ditzaten".

Sakanako Euskalgintzaren Bilguneak bere lehen batzarra azaroaren 15ean egin zuen. Orduan ibarreko euskalgintzak "pairatzen duen egoeraren diagnostikoa" egin zuten. Ondorioetako bat izan zen "gaur egun Sakanan euskalgintza sektore desberdinetan aktibitate sendoa" dagoela. Baina, aldi berean, "hutsune nabarmen batzuk" agerian utzi zituzten: arloko koordinazio beharra, elkarri buruzko informazio zuzenik eza, batzuetan eskualde ikuspegi falta, Sakanako errealitate jakin batzuen ezagutzarik eza... Horregatik beharrezkotzat jo zuten euskalgintza saretzea eta tarteka, gai zehatzen gaineko lan-keta egiteko batzarrak egitea.

# kattuka

haur eskola

Aurre-matrikula:  
Matxoaren 2tik 17ra

Matrikula:  
Maiatzaren 21etik 29ra

Ateak zabalik eguna:  
Otsailak 24

kattuka.com

kattukahareskola@gmail.com \* Uhalde kalea z/g, Arbizu \* 948 567 009

Gardentasuna

Burkikuntza

Konfiantza

Errespetua

Elkarlana

Familia



## Nonerabili

### GERTU SAKANA

#### ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.

### AINHOA ESTETIKA

#### IRURTZUN

Utsusuky packetan, %30eko deskontua.

### ASENSIO

#### ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

### IL PADRINO

#### ALTSASU

Eguneko menuan txupitua doan.

### SARABE TXOKOA

#### ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

### VALCARCE

#### OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

### EDERNE

#### LAKUNTZA

30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zerbitzuekin, maki-laje ukitua doan.

### GUAIXE KOMUNIKAZIOA

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan

### XAGU

#### ALTSASU

% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

### LIBURUNDA

#### ALTSASU

%5eko deskontua papertegia eta irakurketarako liburuetan.



### >> Etxarri Aranatz



Etxarrin aitortza jasotako odol-emaileak eta haien ordeztasunak Adonako ordezkariarekin batera.

## Zazpi aitortza odol-emaileen festan

Atzo eguerdian ospatu zen Etxarri Aranatzko odol-emaileen urteroko festa. Adona elkarteak kideek etxarriarrak euren inguruan odol-emaiteari buruzko kontzientzia zabaltea eskatzeko baliatu zuten. Elkartearen autobusa etortzen denean osasun etxetik pasatzea besterik ez da egin behar.

Ekitaldian, Adonak zazpi etxarriarren eskuzabaltasunaren aitortza egin zuen. Odola 50 alditan emateagatik urrezko domina jaso zuten Bernardo Garziandia Goñik, Iñigo Orella Alzuetak eta Mikel Razkin Iraurgik. 25 emate egiteagatik, berriz, zilarrezko domina eskuratu zuten Juan Fran-

cisco Ansotegi Lizarragak, Francisco Javier Asensio Igoak, Xabier Jauregi Quintanak eta Maria Victoria Lizarraga Senarrek.

#### Datuak

Etxarri Aranatz 448 odol-emaile daude. Haietatik joan den urtean 153k eman zuten odola, aurrekoan baino 26 gehiago. 310 emate egin zituzten etxarriarrak 2014an (82 gehiago). Haietatik, bi aferesi eta bi autotransfusio eziz, guztiak ohiko odol-emaiteak izan ziren. Elkartearen autobusa gehiagotan etorri zenez, 258 odol emate egin ziren Etxarrin bertan 2014an (85 gehiago). Beste toki herri batzutan 52 odol

#### Odol-emaile egiteko

Elkartearen autobusa herrira etortzen denean, osasun etxe edo kontsultategi ondoan jartzen da. Han informazio guztia ematen dute. Bestela, Iruñean, Nafarroako Ospitalearen ondoan du egoitza Adonak. Etxarrira autobusetatik, autobusak, hurrengo bisitak maiatzaren 6an eta 13an egingen du, arratsaldean. Egutegia kontsultatzeko: <http://www.adona.es/eu/hazte-donante/calendario>

emate egin zituzten etxarriarrak (3 gutxiago). Emate guztietatik 60 atzera bota zituzten (18 gehiago). Bestalde, joan den urtean bederatzietxarriar odol-ematera animatu ziren estreinako (aurreko urtean baino hiru gehiago).

### >> Lakuntza

## A ze txorizoak!

**Jose Mari Agirre Lakuntzako harategiak bigarren urtez jarraian Bilbo Hiria Etxeko Txorizoen Lehiaketa irabazi du**

Lakuntzako Agirre harategian pozez hartu dute sariaren albistea. “Zaila da bigarren aldiz irabaztea. Gainera, epaimahaia berriaren, ez zen joan den urtekoa”, zehaztu digu Jose Mari Agirrek. Lakuntzako harakinak esan digunez, “txorizoak egiterakoan bakoitzak bere sekretuak ditu. Nik ilusio handiarekin egiten ditut gauzak”.

#### Lehengaiak, onak

Lehiaketara gordinik jateko diren txorizoak aurkeztu behar dira. Probatu eta puntu-puntu lehertuta eta zaporez ondo daudela iruditzen zaionean jartzen ditu salgai. Txorizo ona egiteko lehengaiak ere onak izan behar dituela ziurtatu digu Agirrek: “ehuneko halako giharra, urdai pixka bat, Faltzesko baratxuria, piper gorri on bat, gatza puntuatua. Zeren gaurko egunean dietistek eta denek eskatzen dute gatza eta koipeak jaitea”. Hori lortzeko probak egiten egoten dela esan digu Agirrek. Txorizoak egin ondoren lehorte-



Agirre, 2015 eta 2014ko txapelduna eta finalista 2007an eta 2009an eta 2012an.

tegian sartzen ditu. “Niri gustatzen zait lehortegetik atera eta naturalean lehortezea beste egun batzuz, eguraldi ona badago behintzat. Lehortegetiak baino beste puntu bat ematen dio kanpoan lehorteak, lehen etxetan egiten zen bezalaxe”. Negu honetan hotz lehorra egin du, hezetasunik gabekoa, eta aproposa izan da txorizoak lehortezeko. Urtean barna, bestela, lehortegean haizagailua eta beste jartzen ditu.

Txorizoez aparte, Agirre harategian txistorrak, odolkiak, tripotxak, tripakiak eta denetariko haragi motak saltzen dituzte. Hala, sariak harategiarendako propagandarik onena direla ziurtatu digu Agirrek: “salmentan nabaritzen da. Trofeoa bistan jarri eta edozein kanpotar etortzen denak erosi egiten du”. Aurten 64 urte beteko dituen harakinak gauzak “mimo handiz” egiten segituko duela baieztatu digu.

### >> Arakil

## Udalak ur-horniduraren prezioan hobariak eskaintzen ditu

**Eguneko ekonomia egoera kontuan hartuta bi zergatan hobariak onartu ditu**

Arakilgo Udalak bando bidez jakinarazi du aurten ur-horniduraren prezioa ez aldatzea eta hobariak ematea erabaki du. Deskontuak edo hobariak lortzeko Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarien (LGS) inguruko baldintza jakin batzuk bete behar dira. Hala bat edo bi kide dituztenen kasuan: LGS edo gutxiagoko diru sarre-ak dituztenek %90eko hobaria izanen dute; LGS baino %10eko sarre-rahandiagoko dituztenendako hobariak %75eko izanen da eta LGS baino %20 gehiagoko sarreradunen hobaria %50eko izanen da. Hiru kideetik gorako familietan honako hobariak izanen dira: LGS edo gutxiagoko diru sarre-ak dituztenendako %100eko hobaria; LGS baino %10 gehiagoko sarre-ak dituztenendako %90 eta LGS baino %20 gehiagoko sarre-ak dituztenendako %75eko. Bestalde, eraikuntzen instalazioen eta obren zergaren gutxieneko kopurua %30eko izanen da. Gainerakoek obraren kostuaren %3,59 ordaindu beharko dute. Deskontuak jasotzeko eskaerak udal-txean aurkeztu beharko dira.

### >> Uharte Arakil

## Ate irekiak udal haur eskolan

**Otsailaren 26an, ostegunean, 16:30ean**

Helduden osteguneko ate irekien ekitaldiarekin Uharte Arakilgo Udalak Pausoka haur eskola guraso berriek ezagutzera eman nahi die. Hilaren 26ko ekitaldian udal haur eskolaren hezkuntza proiektuari, eskaintzen diren zerbitzuei eta abarrei buruzko azalpenak ematen dira. Uharte Arakilgo Udalak jakinarazi du heldu den ikasturterako matrikulazio epea martxoaren 2tik 17ra izanen dela. Denbora tarte horretan gurasoek euren eskaerak udal-txean aurkeztu beharko dituzte, astelehenean ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.

### >> Altsasu

## BioHaus Berdeago azokan

Berdeago, Euskal ingurumen iraunkortasun azokaren hirugarren edizioa gaur hasi eta domekara bitartean egingen da Durangoko Landako Gunean. Azokaren helburua energia-eraginkortasunean, eraikuntza pasiboetan, hondakin-tratamendua eta mugikortasun jasangarriaren dauden azken berrikuntzak erakustea da. Azokan izanen diren 56 enpresa eta erakundearen artean Altsasuko BioHaus Goierri SL enpresa dago. Eraikuntza material ekologikoak eskaintzen ditu, baita arlo horretan prestakuntza ere.

## » Altsasu

**Martxoaren 8aren inguruko ikastaroak**

Altsasuko Udalaren Emakumearen Bilguneak Martxoaren 8ra begira prestatu duen egitarauaren barruan hiru ikastaro daude. Haietan izena emateko epea heldu den astelehen zabalduko da eta martxoaren 3ra arte egonen da irekia. Interesaduten pertsonak Emakumeen Bilgunea (948 564 823) edo 012 telefonoetara hots egin dezake.

**IKASTAROAK**

Emakumeendako autodefentsa tailerra emanen du Cristina Lizarragak. Lau saiotan errespetua, konfiantza eta autoezagutza lantzeaz aparte, arlo fisikoa ere landuko dute. Ikastaroa martxoaren 5ean, 7an, 19an eta 21ean izanen da, ostegunetan 18:00etatik 20:00etara eta, larunbatetan, 10:00etatik 12:00etara; Labadero eraikinean.

Bigarren ikastaroaren izenburua *Sentitu, pentsatu, ekin eta mugitu feminismoan* da. Feminismoan trebatzeko ikastaroak jarrera feminista zer den definitzen saiatu nahi du. "Gure buruaren jabe izateak zein adierazpen hartzen dituen eta zenbait kontraesan aurre egiten diogun feminismoan murgiltzeko hautua egiten dugunean". Horrek guztiak emakumeen munduan egoteko eta jarduteko moduetan, jarreraren duen isla aztertuko da, bereziki gorputzari eta mugimenduari erreparatu, "eta burua eta arrazoia bezainbeste landuko dira gorputza eta emozioak". Emagin elkartek gidatutako tailerra martxoaren 14an, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 18:00etara, Labadero eraikinean. Azken ikastaroa irudiaren eta lengoaiaren erabilera ez sexista da. Irudiek eta lengoaiak norberaren mundu ikuskeran, praktiketan, jarreretan duten garantiza ikusi, irudiek duten indar sinbolikoa eta eraikitzailea aztertu, orain arte elkarte ezberdinek erabilitako irudiak, kartelak eta baliabide komunikatiboak aztertu eta hemendik aurrerako gomendioak eta proposamenak zehaztuko dira guztion atean. Elkarte, eragile zein norbanakoei zuzenduatako ikastaroa da. Martxoaren 17an eta 18an, 18:00etatik 20:00etara, Iortia kultur gunean egingen da.

## SAKANA

**Udaletatik elikadura burujabetzaren alde**

**Hori sustatzearen alde lan egingen du Sakanako Garapen Agentziak, plan estrategikoaren baitako jardun gisa**

Gure Udalerrietatik Elikadura Burujabetzaren Aldeko Kartarekin bat egitea erabaki zuen Sakanako Garapen Agentziaren administrazio kontseiluak aho batez ilbeltzaren 29an. Kartan jasotzen diren ekimenak sustatzeko konpromisoa hartu du agentziak. Aldi berean, udalei ekimenaren berri emanen die.

Sakanako garapen agente den Iker Manterolak azaldu digunez, hartutako erabakiak Sakanako Plan Estrategikoarekin bat egiten du: "planeko elikadura arloko ildo-etako bat tokiko elikadura sistema baten sustapena da. Eta bere helburua laborantza lanpostuak mantendu edo sortzeko egoera



Eragileak Sakanako Plan Estrategikoaren berri ematen. ARTXIBOA

egokiak ahalbidetzea da".

Ekonomia sozial eta solidarioari buruzko Zaragozako azaro akaberako kongresutik sortu da Gure Udalerrietatik Elikadura Burujabetzaren Aldeko Karta. Hainbat esperientzietan oinarrituta, ekonomia Sozialeko hainbat eragile eta toki administrazio Karta bere

egiteko lan egiten ari dira orain, "ahalik eta zabalena egiteko eta hauteskunde aurretik herrietan sortzen ari diren proposamen politikoetan txertatzeko, moldatuz edo egokituz; udal politika eraldatzailerazteko". Agiri horrek "ekonomia eta elikagaiak ekoiztu eta merkaturatzeko modua eraldatze-

ko udaletatik eragitea" gatzat jotzen du.

Elikadura burujabetza eta tokiko nekazal ekonomia sustatzeko udal mailan lantzeko hainbat neurri proposatzen dituen Kartak: herritarretik eta herritarrarendako nekazaritza elikagaien sistema propioak; lurraldearen erabilera sozialaren kudeaketa zuzena; landa eremuan bizi direnei laguntzeko politikak lehenestea; udalen produkzio baliabideak nekazaritza elikagaien sistema berria antolatzeko oinarria izatea; ekonomia sozialeko ekimenen bidez udalak eraugaritan hornituko duen lehen sektoreko sarea osatzea eta, azkenik, jardura aldaketak balio, kultura aldaketarekin batera egin behar da.

## » Urdiain

**Ikasleak First Lego Leaguen**

**Hezkuntza jardueraren helburua ikasleek talde lanaren bidez zientziara, teknologiarara eta berrikuntzara erakartzea da**

Asteburuan Urdiaingo herri eskola LHko 6. mailako eta DBHko 2. mailako 12 ikasle Iruñean izan ziren First Lego League lehiaketan parte hartzen. Urdiaingo taldea beste 27rekin batera neurtzen etan ederra egin zuten, urdiaindarrak 8. a. sailkatu baitziren. Hezkuntzari eskainia zegoen lehiaketa aurten. Larunbatean Iruñeko Planetarioan lehiaketaren zati zientifikoa jokatu zen. XXI. mendeko ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko taldeek euren proposamenak aurkeztu zituzten. Alderdi praktikoa domekan Baluartan jokatu zen, ikasleek Lego piezez diseinatutako eta programatutako robotekin zenbait erronki aurre egin behar izan zieten.

## SAKANA

**Ibarreko historiaren ikerlari gazteak**

**Frankismo garaiko 250 sakandarren testigantza jasoak dituzte institutuan**

Aurreko ostiralean Aralarko Mikel Donea institutuko DBHko 4. mailako ehun bat ikasle Laura Benadibarekin bildu ziren. Historialari argentinarra, ahozko historia jasotzeko metodologian aditua, Iruñera liburu bat aurkeztera etorri behar zela baliatuta Altsasura etorri zen. Hainbat liburu eta DVDren bat argitaratuak ditu eta Argentinan ikasleekin gaia asko landu du. Ostiralean ikasleei ahozko iturriekin nola lan egin azaldu eta grabazioak egiteko aholkuak emanen dizkie.

Institutuko Gizarte Mintegiko irakasle Ander Leonek azaldu digunez, "DBHko 4. mailan ahozko historia lantzen dugu. Ikasleek adindu bati elkarrizketa bat egiten diote. Frankismo garaian nola bizitzen ziren galdetzen diete: txikitako gauzak (haurtzarora, eskola...), gaztetasuna, jaiak, ezkontza, bikote harremanak, lana, politika, erlijioa eta halakoak". Ikasleek irakasleari elkarrizketaren transkripzioa, hura jasotzen duen diskoa, audioa edo bideoa, eta haiek



Laura Benadiba, ezkerrean, ikasleekin lortian.

egindako laburpen bat eman behar diote. Dagoeneko, aurtengo grabazioa eginga dute.

**Onurak**

Ikasketa era horren onurak nabarmendu dizkigu Leonek: "ikasleek ikasten dutenaren parte dira. Ikasgelan ikasten dutena euren familiei ere gertatu zaiela ikus dezakete. Gertutasun hori aprobetxatuz eduki hori lantzeko beste modu bat da". Eta gaineratu du: "ikasleek historia beste modu batez ezagutzearekin batera, historiako iturri bat ere sortzen ari dira. Tes-

tigantza horiek beraiek jasotzen ez badituzte ez lituzke inork jaso eta galdu egingen lirateke".

Leonek argitu digunez, langintza horretan zazpi urte daramate. "Frankismo garaian nola bizi diren azaltzen duten ibar guztiko 250 bat sakandarren elkarrizketa dituen artxibo bat dugu institutuan". Ikastetxean bertan kontsultatu daiteke funtsa eta bilaketak azkartzeko jasotako guztiaren datu base bat egiten ari dira. Irakasleek gaineratu duenez, "gauza bera egiten duten Nafarroako beste institutu batzuekin harremanetan gaude".

2015 **LAKUNTZA** Kultur Etxea Otsailak 22, 17:30 **FINAL-LAURDENAK**

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

www.bertsozale.eus

ENEKO LAZKOZ PATXI CASTILLO IOAR TAINTA INIGO OLAETXEA XABIER MAIA XABIER TERREROS

beleixe guaixe.eus

&gt;&gt; Altsasu

# Asteazkenean epaituko dute Martinez

**Epaiketa salatu eta gazteari elkartasuna adierazteko ekimenak eginen dituzte bihar**

Duela bi urteko Donostiako aske gunean atxilotzeko agindua zuten sei gazte babesteko herri harresia osatu zuten ehunka gaztek. Harresi hartan parte hartu zuten Edurne Martinezek. Ertzaintzak atxilotu eta agintearen kontrako atentatua leporatu zion. Altsasuarra asteazkenean epaituko dute. 15 hilabeteko espetxe zigor eskaera eta isuna eskatzen dute harendako.

Epaiketa salatzeko Edurnerekin bat dinamika martxan jarri zen. Donostiako herri harresian atxilotu zituzten bi gazteak “mun-



Aurreko ostiraleko elkartasun ekitaldian Martinez elkarrizketatu zuten.

tai polizial eta mendeku politikaren ondorio garbia” direla uste dute, “izan ere, edozein izan zite-

keen atxilotua. Eta ondorengo herri harresietan ere akusazio berarekin beste hainbat atxilotu

egon dira”. Euskal gaztearen “kriminalizazio” saioak salatu dituzte dinamikatik.

## Deialdiak

Edurnerekin bat dinamika antolatutuen ekimenetan parte hartzera deitu ditu altsasuarrak. Bihar, 13:00etan, Foru plazan argazki erraldoia eginen da. Bazkaria ere iragarria dago. Asteazken goizean Donostiako auzitegira joateko deia ere egin du dinamika. Asteazkenean, bertan, 19:00etan Altsasuko udal txeko aurrean kontzentrazioa eginen da.

SAKANA

## Iruñera deitu dute, goi tentsioko linearen kontra

**Bihar, 12:00etan, Iruñeko Karlos III. etorbidean, Nafarroako Gobernuaren parea**

Autopista Elektrikorik Ez! plataformak deitu du elkarretaratzea. *Goi tentsioko lineari ez. Ate birakari ez!* leloa izanen du. Sakanan barna Deikaztelu eta Itsaso lotu nahi duen 400 kV-eko linea egitasmoa bertan behera uzteko eskatuz eginen da kontzentrazioa. Espainiako Gobernuaren egitasmoaren arabera gaur egun Sakana zeharkatzen duten goi tentsioko bi lineak indartu eginen liriteke eta hirugarren berri batera kiko litzateke.

&gt;&gt; Burunda / Lakuntza

## Bi ikastetxe software-ko programazio proiektu batean

Lakuntzako Luis Fuentes ikastetxe publikoa eta Burundako Iñigo Aritz ikastola, Nafarroako beste 88 ikastetxerekin batera, Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailan software-ko programazioa erakusteko proiektu batean parte hartzen ari dira. Haren bidez ikasleei informatika-programak diseinatzeko (software) eta robotikako aplikazioetan erabilitako lengoian idazten erakutsi nahi zaie. Bai Lakuntzan bai Altsasan ikasleak robotikan prestatzen eta Scratch lengoiaarekin programazio-proiektuak garatzen dituzten irakasleak daude eta, horri esker, era oso bisualean, jolas, istorio eta animazio interaktiboak sor daitezke.



Haurrak jolasean. ARTXIBOA

&gt;&gt; Arruazu

# Askapenak lan internazionalistarekin segituko du

Askapenaren kontrako epaiketaren auzipetuta dauden boste euskal herritarrek, Aritz Ganboa arruazuara barne, aurreko astean jakin zuten fiskaltzak haiendako seinan urteko espetxe zigorra eskatzen duela.

Auzipetuek larunbatean adierazi zuten “argi” gelditu dela Askapenaren kontrako sarekada “gezur handi bat baino ez zela izan”. Haien iritziz Askapenaren kontrako polizia operazioa “ezker abertzalea zigortzeko pentsatutako sareka bat izan zen”. Baita “herri honek hamarkada luzeetan zehar eginiko lan internazionalista zan-

go tratatzea” ere, “estatuaren mugetatik kanpo ezarri nahi duten isiltasuna hausten ari ginelako”. Ziurtatu zuten, “ez diogu inori gure militantzia politikoari mugak jartzen utziko”.

Agerraldian bost auzipetuek Askapenako 80 kide baino gehiagoren babesa izan zuten eta adierazi zuten: “internazionalismoa Euskal Herriaren askapen prozesuko ezinbesteko ardatza dela ulertuta lanean jarraituko dugu”. Auzia salatzeko ekimenak eginen dituztela iragarri dute erakunde internazionalistatik.



Auzipetuek Askapenako kideekin batera emandako prentsaurrekoa. UTZITAKOIA

SAKANA

# Errigorarekin olio eskutik eskura

**Gaurtik martxoaren 4ra arte Errigorari olio eskatzeko aukera izanen da; bost litro oliba olio birjina estra ekologikoa 28 eurotan eta konbentzionala 20 eurotan**

Errigorak (www.errigora.eus) Nafarroako hegoaldeko ekoizle- en produktuen laginekin osatutako 12.000 saski banatu zituen udazkenean. Herri ekimenak handik lortutako diruaren puska bat,

151.000 euro, eskualde bereko euskalgintzari bideratu zion. Errigoraren jarduna, ordea, ez da kanpaina horretara mugatzen, herritarren kontsumo ohiturak birplanteatzea baitu helburu, urruneko ordez, urte osoan bertoko jakiak kontsumitzearen alde egiten du.

Hala, Eskutik Eskura ekime-

na martxan du ere. Haren bidez, euskal nekazari eta ekoizleak lagundu nahi dituzte, logika espekulatiboetatik aparte. Kalitatezko produktuak zabalduz, beti ere, ekoizle eta kontsumintzaileendako egokiak diren prezioekin. Hala, otsailean, Nafarroako oliba olio ekoizleetatik gure etxetara ekartzeko kanpaina mar-

txan jarri du Errigorak. Maiatzean, berriz, kontserben txanda izanen da.

Euskal Herriko 50 herri edo hiritan eginen du aurten Errigorak olioaren kanpaina, joan den urtean baino 20 gehiagotan. Beraz, banatutako 30.000 litroen marka gaudituko dela pentsatzen da.

# Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren aurkezpena

**Asteartean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean haren egoera, edukia eta datozen erronkak azalduko ditu Iñaki Morenok**

Hego Euskal Herriko makina bat gizarte- eta langile-erakundeak sinatu duen agiria da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta. Guztiek ere, “bizitzaren sustengua erdigunean jarriko duen gizarte eredu” defendatzen dute. Horregatik, Kartan norabide horretan aurrera egi-

teko neurri zehatzak proposatu dituzte hainbat arlotan: aurrekontu eta politika fiskal eta sozialak; aldaketa; kalitatezko enplegu sortzeko politika; jendartearen parte hartzea bermatzea; bizitzaren jasangarritasuna eta ongizatea sustatzea eta, azkenik, demokrazia eta eskubide kulturalen defentsa eta horiekiko konpromisoa.

Kartaren sustatzaileen iritziz,

“aliantza sindikal eta sozial indartsua behar da, proposamenak egin eta lehentasunak adosteko gaitasunarekin”. Zeregin horretan “Karta oinarritzko tresna da, Euskal Herrian ezartzen diren politikak errotik aldatzeko beharrezko abiaturik eta gure gizarte eredu alternatiboa jasotzen duena”. Gobernuak ezarritako “politika antisozialek pobrezia eta aberas-



Karta prestatzeko Sakanan batzarrak egin ziren, tartean Altsasan.

tasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa” ekartzen dutela salatu dute. Horregatik, Kartaren sinatzaileek Hego Euskal Herriko

governuei eskatu diete “alternatiba errealean eztabaida ez ekiditeko”, horrela “aldaketa soziala eragozten” ari direlako.



## Nafarroako Hondakin Planaren baliogabetzearen ondorengo ererakzioak

## SAKANA

# Udalak errausketa baztertzen duen hondakin plan baten alde egin du

**Nafarroako Hiri Hondakin Kudeaketa Plan Integratu berria parte-hartzailea izateko eskatuz eta Nafarroa guztian hondakin errausketaren edo balorizazioaren kontrako manifestua sinatzeko alkateekin harremanetan jarri da udala**

Porlandegian hondakinak balioztatzearen ondorioz eraginak jasan ditzaketen Arabako Lautadako, Lizarraldeako eta Sakanako alkateekin harremanetan jarriko da Gurutze Rodriguez, Olatzagutiko alkatea. Guztien artean hondakin errausketaren edo balorizazioaren arteko manifestu bat adostea du helburu kontaktu erronda horrek. Baita guztiek Nafarroako Gobernari eskatzea Hiri Hondakin Kudeaketa Plan Integratu (HHK-



Ezkerretik eskubira Eduardo Agirre, Martin Zelaia, Gurutze Rodriguez eta Aitor Karasatorre.

PI) berria parte hartzearen bidez egin dezala.

Tafallaldean errauskailu bat egitea aurreikusten zuen aurreko HHKPI Espainiako Auzitegi Gore-

nak baliogabe utzi zuen. Gobernuak berak halakorik ez duela egingen aurreratu du. Antza, gizartearen eta erakundeen kontrako jarreragatik. "Kontrako jarrera

argien erakutsi duten tokian jarri nahi izatea ez da onargarria. Eskualdearekiko diskriminatzaila litzateke".

Rodriguezek, bestalde, foru

## Helegiteak

Porlandegian errausketaren kontra Olatzagutiko Udalak hiru helegite jarriak ditu Nafarroako Auzitegi Gorenan. Eta 2011n jarritako beste baten epaiaren zain dago. Udalak bezala, Sustri Erakuntzak eta Sakanako Mankomunitateak ere helegitea jarrita dute Iruñeko auzitegian.

administrazioari eskatu dio baliogabe utz dezala porlandegian hondakinak erretzeko aukera ematen duen Udalez Gaiendiko Proiektu Sektoriala. "Epaitegiek esana dute halako azpiegituren kokapena ezin direla ekimen pribatuaren esku utzi". Alkateak nabarmendu duenez, "porlandegian errausketa salbuespeneko bide bat erabiliz inposatu nahi digute, Olatzagutiko udal araudiaren gainetik bidegabeki eta basatiki pasaz".

## Sustrai Erakuntza: "hondakin errausketa teknika iraungita dago"

**Porlandegian hondakin errausketa aukera "behin betiko baliogabetzea" exijitu du**

Sustrai Erakuntza fundazioaren izenean Martin Zelaia "hondakin kudeaketa osoaren planifikazio berria egiteko beharra" azpimarratu du. Errausketa baztertu eta lehenik hondakin gutxitu, ahal diren produktuak berrerabili eta, azkenik, ahalik eta hondakin gehien birziklatzearen alde agertu da fundazioa; "hori eginda, birziklatu ezin daitezkeen hondakin kopurua oso txikia da eta bere errausketa ez da errentagarria".

Espainiako Auzitegi Gorenak aurreko plana baliogabetu ondoren, fundaziotik jakinarazi dute Nafarroako Gobernuak bertan behera utzi dituela plan haren jarraipen batzordea eta errebisio batzordea. Horrekin batera, 2015-2025 Hiri Hondakin Kudeaketa Plan Integratua (HHKPI) onartzeko prozedura zabaldu duela ere. Nafarroako Gobernuaren web orriko Gobernu Irekirako Atarieren (<http://gobiernoabierto.navarra.es/es/content/plan-integrado-gestion-residuos-navarra-2015-2025>) bidez aurre txostenetarako ekarpenak egin daitezke.

Zelaia salatu duenez, plan berria prestatzeko Nafarroako Gobernuak bildutako txostenen artean errefusa diren hondakinak erretzearen aldeko bat dago. "Sortzen dituzten Hondakinetatik Eratorritako Erregaien arabera sailkatzen ditu txosten horrek hondakin tratamendu sistemak,



Cementos Portland Valderrivasek Olatzagutian duen porlandegia.

ziurrenik gero Olatzagutian erre ahal izateko". Aukera hori guztiz baztertzea eskatu du fundazioak.

Fundazioko kideak "plan berria egiteko aurretik eztabaida eta hausnarketa osatua" eskatu du. Politika eta gizarte eragileek adostutako plana lortu behar da, hondakinak kudeatzen dituzten toki erakundeen beharrak asetzen dituenak. Inon iragarri gabe, txostenak web orrira igotzearekin eta ekarpenak egiteko 15 egun ematea aski ez dela adierazi dute fundaziotik.

## Epaitegiak

Espainiako Auzitegi Gorenak baliogabe utzitako HHKPIren marko barruan Nafarroako Gobernuak Udalez Gaiendiko Plan Sektorial (UGPS) bidez porlandegian hondakinak errausketa bidea eman zuen. Sakanako Mankomunitateak eta Sustrai Erakuntza

fundazioak UGPS kontra jo zuten Nafarroako Auzitegi Gorenera. Fundaziotik jakinarazi dute Espainiako Auzitegi Gorenaren epaia UGPSaren kontrako auzira gehitu dutela.

## Herritarrak mobilizatzeko deia errausketaren aukera plan berrian ez jasotzeko

3Mugak Batera (3MB) plataformaren izenean Eduardo Agirrek esan du "Nafarroako Hondakin Plana bertan behera uztea urrats garrantzitsua" dela, "hondakin errausketa osasun publikoari, ingurumeneri eta bere eraginpeko eskualdeetako baliabideei lekarkiekeen kalte eta arriskua desagerrarazten delako". Hala ere, nabarmendu du errauskailua eraikitzeak aukera baztertu badute ere, "hondakinak erretzeko are desagokioa den Olatzagutiko porlandegiarekin ez dute gauza bera egin".

Plataformako kideen iritziz, Nafarroako hondakin plan berriatik "ez Portland-en ez beste inongo instalazioetan errausketa den hondakinik ez ateratzea lortu behar dugu". Horregatik, 3MBtik "Nafarroako Gobernuak eta Portland-ek basakeria horrekin aurre-

ra jarrai ez dezaten, mobilizazioa eta azken bultzada ematera deitzen ditugu herritarrak".

## Argudioak

3MBtik nabarmendu nahi izan dute "Nafarroako Gobernuaren eta FCC-ren zementu-fabrikak sinatu eta indarrean dagoen hitzarmena, zeinek babesa eskaintzen zaio plantetan hondakinak kudeatzeari, gero bertatik sortutako hondakin produktuak zementu-fabrikaren labeetan errausketa". Gogora ekarri dute ere "Olatziko udal arauak saihesteko Portland-en errausketa proiektua Udalez Gaiendiko Proiektu Sektorial gisa" onartu zuela gobernuak. Plataformatik berretsi egin du porlandegiak ingurumenari eta osasun publikoari ekarriko lizkiekeen ondorioak. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**

**JUANLUZENA**  
**SAGARDOTEGIA**

urtariletik maiatzera  
tel. 948 604 571

**ODERITZ**

**Ana Santano**

Bularra ez da soilik eilkadura

Edoskitzerako amendako laguntza

Ikastaroa

Martxoak 4, 17:30etan  
haurdunenendako ikastaroa

635 811 106  
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



**Juan Carlos Chao Unciti**

Besarkada bat eta nahi duan arte.


Ceramics Utzubarreko zure lagunak



**Juan Carlos Chao Unciti**

Gure bihotzean beti.

Zure lagunak



**Carmen Nagore Biurrun**

Zure maitasuna eta alaitasuna eman zenigun, zure goxotasuna izango dugu oroimenean.

Etxekoak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora**



**Oroigarriak egiten ditugu**

Nahi duzun argazki eta testuarekin

**GUIAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
argi@guaixe.net



GRUPO Funeraria **VASCONGADA** Ehorzketak TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

## Higiezinak LOKALAK

### ERRENTAN EMAN

**Pabiloi bat alokagai edo salgai Altsasuko Ondarria industrialdean.** 140m2 ditu solairuak, 60m2 solairuarteak, bulegoak eta komunek polipastoak dute. Mantenimendua eta metalezko errementaria lanak egiteko prestatua. TI 649 44 35 91.

**Arraindegi bat eskualdatzen da.** Goierrin. Lanean eta errentagarria. Kuxkuxerorik ez, mesedez. Interesatuak hots egin telefono honetara: 635 75 83 74.

## Ikastaroak

**Olatzagutiko Erburua kiroldegian azken plaza.** Pilates, indoor zikloa, aerodance, mantentze soinketa eta yoga ikastaroetan azken plaza bete- zeko daude. Otsaila eta maiatza bitarteko ikastaroak. Informazio gehiago kiroldegian edo 948 56

45 12 telefonoan.

## Lehiaketa

**Erromantzatuen koloreak.** Nafarroako ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatuta da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa [www.restauranteromanzado.com](http://www.restauranteromanzado.com)

## Oharrak

**Odol-emaileak.** Otsailaren 24an, 25ean eta 26an, Altsasun arratsalde; 27an Altsasun goizez.

**Ekintzaileei bultzada.** Nafarroako Gobernuak sustatutako programa baten bidez zortzi enpresa proiektu aukeratu, bultzada programa batean sartu eta laguntza ekonomikoa emanen zaie. Eskeraerak martxoaren 10era arte. Informazioa [www.cein.es](http://www.cein.es)

**Etxarriko irakurle taldea.** Alberto Ladronek "Arotzaren eskuak" liburuz ariko dira martxoaren

ren 12an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian.

**Axio.** Jose Ignacio Floresi buruzko dokumentala egiteko diru-laguntza eman nahi duenak ES04 3035 0112 00 1121055951 kontu korrantean edo [www.karena.eu](http://www.karena.eu) plataformaren bidez egin dezake. Informazio gehiago [www.axioflores.com](http://www.axioflores.com)

**Iruñeko euskarazko telebistaren ald.** Xaloa telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? [www.karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-iruneriari](http://www.karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-iruneriari) edo Iruñeko Karririkiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudendan (kale Nagusia 54).

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo

[sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.** Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpinak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

**Tartalariendako laguntza.** Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

## JAIOTZAK

- Francisca Mazkiaran Larraza, otsailaren 10ean Altsasun.
- Mari Carmen Nagore Biurrun, otsailaren 13an Etxarri Aranatzen.
- Lorenzo Tiburcio Inda Etulain, otsailaren 16an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

**Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola libre nahi baduzu.** Ddeitu 661-59 04 20 telefonoa.



## Areto futbola



Eseverrik goletako bat sartu zuen.

## Berdinketa tristea Magnarendako

1-3 irabazten joan ondoren, azkenean launa berdintzea lortu zuen Peñiscolak

Magna Nafarroa Xotak garaipena eskura izan zuen Peñiscolan. 1-3 aurreratuta ere egon ziren Imanol Arregiren mutilak, eta partidako azken 5 minututan laura berdintzea lortu zuen Peñiscolak.

Inter Movistar da liderra (57 puntu). Magna Nafarroa 7.a da (34 puntu). Gaur, ostiralean, Magna Nafarroak bere gainean, 6. postuan dagoen Palma Futsal taldea hartuko du Iruñeko Anaitasuna Pabilioian, 20:30ean. Bi arerio zuzenen arteko norgehiagoka izanen da eta ea Magnak distantziak laburtzea lortzen duen.

## Atletismoa



Izaskun Beunza Ergoienako Biran.

## Izaskun Beunza 5.a Nafarroako Kross Luzeko txapelketan

Tuteran jokaturako lasterketan Marcos Yaniz (35:03) eta Ana Olló (27:05) nagusitu ziren

Igandean Tuterak hartu zuen Nafarroako Kross Luzeko lasterketa. Gizonezkoen lasterketan 27 urteko Marcos Yanizek sorpresa eman zuen eta helmugara bakarrik iritsi zen (35:03), Jaouad Boulame (35:10) eta Antonio Etxeberriaren (35:14) aurretik. Eta emakumezkoetan ere sorpresa izan zen, Ana Ollók hasieratik aurrea hartu eta merezitako txapeladuna izan baitzen (27:05), Vanesa Pacha (27:28) eta Ana Llorens (28:05) korrikalarien aurretik. Izaskun Beunza olaztiarra 5.a iritsi zen helmugara (28:49).

## Pista txirrindularitza



Juanjo Erdozia lanean. ARTXIBOA

## Erdoziaren eta Beltzaren aukera

Zilarrezko finalerdietara sailkatzeko berraukerako jardunaldia jokatu dute larunbatean Bilbon

Binakako Zilarrezko Aizkora Txapelketan bigarrenak eta hirugarrenak sailkatu diren bikoteek finalerdietara sailkatzeko aukera izango dute, berraukerako jardunaldia jokatu baita bihar, larunbatean, Bilboko Doña Casilda parkean, 13:00etan. Ondoko bikoak lehiatuko dira: Zaldua-Dorronsoro, Alkizaleta II-Alberdi Txikia IV, Erdozia-Beltza eta Toledano-Trilla. Irabazten duen bikoak finalerdietan egoteko aukera izango du. Senosiain II.a eta Iban Resano dorrobarrak Zilarrezko Txapelketako finalerdia jokatzeko sailkatuak daude dagoeneko.

## Pista txirrindularitza



Hodei Mazkiaran. ARTXIBOA

## Hodei Mazkiaran ez da Munduko Txapelketan ariko

Ilbeltzeko erorikoaren ondoren ez da guztiz osatu

Igandera arte 22ra Munduko Pista Txirrindularitza Txapelketa jokatzeko ari da Frantziako Yvelineseko Saint Quentin. Espainiakoselektzionatzailerak Sergio Aliaga eta Juan Peralta nafarrak konbokatu ditu. Proban ez da Hodei Mazkiaran ariko. Altsasuarrik ilbeltzaren erdialdean erorikoa izan zuen Colombiako Calin jokatu eta orduetik ez du bere ohiko maila berreskuratu. Udaberriko guztiz errekuperatuko dela urreikusten da. Londongo Olinpiadetan arituta gero, Rio Janeiroko 2016ko Olinpiadetan aritzea da bere erronka.

## Saskibaloia



Saskibaloian. ARTXIBOA

## Sakanako Saskibaloitopaketak jokoan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako Sakanako II. Saskibaloitopaketan 4. jardunaldia jokatu da igandean Etxarri Aranzko San Donato ikastetxean. Premini mailako taldeak lehiatzen dira, 8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak.

## Sakanako Saskibaloitopaketak. 4. jardunaldia

Igandean, 11:00etan, Etxarri

11:00etan: Etxarriko Lehoiak - Etxarriko Arranoak

12:00etan: Iruztungo Amuarrainak - Altsasuko Basurdeak (Altsasuko Oreinak atsedean)

## Txirrindularitza

## Rural Kutxa-Seguros RGA taldearen aurkezpena

Ostegunean egin zuten aurkezpena, Burlatako Kultur Etxean. Talde profesionala (19 txirrindulari), afizionatuena (24 txirrindulari) eta Muskaria eta Tolosako eskolak aurkeztu zituzten

Juanmari Guajardo speaker altsasuarrik gidatutako ekitaldian egin zuten Sakanatik sortutako Rural Kutxa-Seguros RGA taldeen aurkezpena aurreko ostegunean, Burlatako Kultur Etxean. Rural Kutxak 23 urte daramatza kirol proiektu hau babesten baina 6. urtea izango da talde profesionala duena. Ekitaldian talde profesional kontinentalak, talde afizionatua eta Muskaria eta Tolosako eskolak aurkeztu zituzten. Aurkezpenean beste jardunen berri eman zen ere. Tartean, Nafarroako Elitkagai Bankurako egindako ekimenari esker 125 tona jaki bildu zituztela azaldu zuten.

Rural Kutxa taldeko presidenten Floren Esquisabel altsasuarrik hasi berri den denboraldiaren aurrean betiko moduan "ilusioz gainezka" zeudela nabarmendu zuen. "Aurpegi berriak, babesle berriak, helburu eta erronka berriak, baina ilusio berberarekin, konpromiso berberarekin, umiltasun berberarekin, anbizio berberarekin eta txirrindularekiko pasio berberarekin. Etxeko taldea izaten jarraitu nahi dugu, talde borrokatzailea, gauzak errazak ez izan arren lanari esker proposatzen duena lortzen duena" adie-

## Afizionatuetan lakuntzar bat



Talde amateurak 24 txirrindulari ditu: David Seage (A Coruña), Jacobo Ucha (Pontevedra), Alejandro Martinez (Murcia), Asier Unanue (Gipuzkoa), Carlos Jimenez (Ciudad Real), Cristian Cuervo (Colombia), Cristian Rodriguez (Almeria), Daniel Lopez (A Coruña), David Civera (Valencia), Erlend Sor (Norvegia), Hector Saez (Albacete), Iker Azkarate (Gipuzkoa), Jaime Roson (Zamora), Jesus Alberto Rubio (Gaztela Mancha), Jonathan Lastra (Bizkaia), Jose Maria Rodriguez (Sevilla), Josu Zabala (Nafarroa), Manuel Sola (Granada), Migel Indurain (Nafarroa), Odei Juango (Lakuntza, Nafarroa), Salvador Martinez (Salvador), Victor Etxeberria (Nafarroa), Margos Altur (Valentzia) eta Ivan Venter (Hegoafrika). Zuzendariak: Alberto Mazkiaran eta Ivan Latasa.

razi zuen. Halaber, zaleek emandako babes eskertuz. "Taldea animatzen ikustea gozamen da. Vueltan Aralarko igoerako olatu berdea ikustea oso hunkigarria izan zen. Ea horrela jarraitu dezakegun" gaineratu zuen.

## Afizionatuak Alberto Mazkiaranen aginduetara

Rural Kutxa afizionatuen taldea oso talde gaztea da. Helburua, betiko moduan, txirrindulariak

trebatzea da, profesional mailara salto egin dezaten. 24 txirrindulari izanen ditu aurten eta Alberto Mazkiaran izanen da zuzendaria. "Aurpegi berriak ditugu eta talde polita da. Esperientzia emango diguten eliteak gazteekin batera ariko dira. Helburua txirrindulari gazteak trebatzea da, etorkizunean talde profesionaletarako saltoa egiteko aukera izan dezaten. Eliteek handitzen eta txirrindulari moduan hobe-

tzen lagunduko diete. Irabaztea beti da polita, konfiantza eta lan egiten jarraitzeko motibazioa ematen dizu, eta ea guztia lortzeko aukera dugun" adierazi du Alberto Mazkiaranek.

## Hasi da denboraldia

Afizionatuek asteburuan eman diote hasiera denboraldiari. Batek, Ektor Basque proban lehiatu ziren. Victor Etxeberria eguneko ihesaldian sartu zen eta Erlend Sor

## Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesionala

Talde profesionalak 19 txirrindulari ditu. Aurreko urtetik 12 txirrindulari jarraitzen dute: Javier Aramendia, Amets Txurruka, Pello Bilbao, Omar Fraile, David Arroyo, Lluís Mas, Francesco Lasca, Fabricio Ferrari, Antonio Molina, Fernando Grijalba, Angel Madrazo eta Heiner Parra. 7 txirrindulari berriak talde amateurretik igo den Migel Angel Benito, Carlos Barbero, Hugh Carthy, Eduard Prades, Ricardo Vilela, Sergio Pardiella eta José Gonçalves dira.

2014 denboraldian Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesional kontinentalak 5 garaipen lortu zituen eta lasterketa gehienetan txirrindulariak oso borrokalari azaldu ziren, garaipenagatik borrokan. Plantilla orekatua da eta helburua talde bezala haztea da, Rural Kutxak geroz eta protagonismo gehiago izan dezan. Txirrindulariak trebatu nahi dituzte, lasterketan gogor borroka dezaten eta dena eman dezaten. Horretaz gain, taldea garaipenak lortzen saiatuko da. Egunotan Almeriako klasikoan ari dira.

eta Jose Rodriguez lehen 30 postuetan sailkatu ziren. Asteburuan Espainiako Kopa abiatuko da.

## Txirrindularitza

# Pablo Urtasun, Japoniara bidean

**Team Ukyo taldeko txirrindulari urdiaindarrak denboraldiari hasiera emango dio Japonian**

Pablo Urtasun urdiaindarrak bere ibilbide berriari ekin dio. 2013an Euskaltel-Euskadi taldea desagertu ondoren, 2014an Txileko Pino-Road taldean aritzekoa zen urdiaindarra, baina taldea ez zen aurrera atera. Hala ere, Urtasunek ez zuen etsi, gogor entrenatzen jarraitu zuen eta saria jaso du: 2015ean Japoniako Team Ukyo talde kontinentalean ariko da.

## Helburua: Japoniako Kopa

Pablok igandean hartuko du Japoniako bidea eta gogotsu dago. Kalkun arrosa kolorekoa zen bere maillota, Euskaltelen laranja eta Team Ukyon beltza izanen da. “Laranja jantzita urte asko pasa eta gero orain kolore beltza izango dut. Hasieran arraroa egin zitzaidan, baina ohitu naiz” dio. Urdiaindarrari Japoniako txirrindularitzari buruzko erreferentzia onak eman dizkiote. “Japonian 9 talde kontinental daude eta Japoniako Kopa bat antolatzen dute urtero, 20 probekin. Eguneko probak dira. Nik espero baino hobe dago txirrindularitza han” kontatu digu. “Japoniara iritsita kontzentrazio txikia egingo dugu, taldearen aurkezpena taldearen egoitzan egingo dugu eta gero Koparekin hasiko gara. Lasterketekin hasteko gogoekin nago” aitortu digu.

Team Ukyo taldeak irabazi du Japoniako Kopa azkeneko bi edizioetan, eta aurten ere Kopagatik borrokatzea da helburua. Kopak etena izaten du garila-agorri alderra eta tarte horretan hemen egotea espero du. “Aurreko urtean Team Ukyo Ordiziako Klasiakoan eta Portugalgo itzulian egon zen. Aurten ere garilean eta agorriean Europako lasterketetan aritzeko asmoa dute berriro. Ea hemengo probatan aritzeko gon-

gertutik >>

## Pablo Urtasun

Team Ukyoko txirrindularia

### Team Ukyo nola jarri zen zurekin harremanetan?

Aurreko urtean, 2014an, nire lagun bati eta niri Portugalgo Itzulian eurekin aritzeko eskaintza egin zigun Team Ukyok. Talderik gabe nengoen orduan, baina itzulia prestatzeko denbora gutxirekin abisatu ziguten, ez nengoen ziur probara ondo ailegatu nintzen ala ez eta nahiago izan nuen ezetz esatea. Baina neguan nirekin harremanetan jarri ziren berriro Team Ukyokoak eta taldean aritzeko hitz egin genuen. Denboraldia prestatzeko denbora nuenez eta prest nengoenez, baiezkoa eman nien. Ukyo taldeko txirrindulari Salva Guardiaren bidez egin nituen lehengo harremanak. Guardiola aurreko urtean Ukyorekin aritu zen eta aurten ere bai.

### Ezagutzen dituzu Ukyoko beste taldekideak?

Salva Guardiola, Oscar Pujol eta ni izan ezik, gainontzekoak japoniarrek dira. Guardiola eta Pujol ezagutzen ditut, baina gainontzekoak ez.

**Japoniako esperientzia berria izanen da guztiz, batetik txirrindularitza profesionalera bueltatuko zarela eta bestetik, zure bizitzarako esperientzia ezberdina izango delako.** Bai. Japoniari buruz ezer gutxi dakit. Kultur ezberdina, hezkuntza ezberdina, gauzak egiteko



modu ezberdina... dena da berria; bizimodu berria, ikusteko eta ikasteko. Hori aberasgarria da. Eta kirolean sartuta, ez dut ongi ezagutzen bertako txirrindularitza, ez dakit ze maila izango duten, maila horrekiko nola egongo naizen eta dena ikusteko eta ikasteko daukat.

### Non biziko zara?

Taldeak aspaldi etxe bat erosi zuen atzeritarrentzat Tokyo inguruan eta han egongo gara Guardiola, Pujol eta hirurok, Tokyotik oso urrutikoak diren japoniarrekin batera. Lasterketak ez daudenean han entrenatu eta biziko gara.

**Japoniak ze orografia dauka? Menditsua da, lava... Nolako klima topatuko duzu?** Euskal Herriko klima eta orografiarekin antzekotasun handia du.

Biak ipar hemisferioan gaude, gutxi gorabehera altuera ia berdinean, eta Salva esaten didenez eguraldia oso antzekoa da. Etxean bezalako giroa, alde horretatik.

### Zenbat denborarako zoaz?

Asmoa lehenengoz igandean joan eta ekainera arte bertan egotea da. Ekaina inguruan etxera etorriko nintzateke, hemen Estatuko Txapelketa prestatzeko. Gonbidapenak lortzen baditugu Ordizia, Getxo, Portugal eta Burgoseko probetako gonbidapenak lortzen baditugu bi hilabete arituko nintzateke hemen, garila eta agorri alderra. Gero Japoniara itzuliko nintzateke Japoniako Kopa bukatzea, ahal den hobekien.

### Taldean zein izango da zure lana?

Esaten dutenez, Japoniako Ko-

pako lasterketa askotan talde txikiak iristen dira helmugara elkarrekin eta esprintean erabakitzen dira lasterketak. Esprinterra naizenez, talde txiki horietan aurrean ailegatzea eta lasterketak disputatzen saiatzea da asmoa. Dena den, urte bat lehiatu gabe gorputzak nola erantzuten duen ikusi beharko da. Lehengo lasterketetan agian erritmo falta nabarituko dut baina probak pasa ahala hobeto egotea eta lasterketak borrokatzea espero dut.

### Azkeneko urtean lehiatu gabe arituta, entrenatzeko motibazioa ez da berdina izango, ez?

Aurreko denboraldian Txileko Pino-Road taldean aritu behar nintzen, aurreko neguan prestakuntza ongi egin nuen, berdin entrenatu nuen, baina gero taldea ez zen atera. Txirrindulan jarraitzeko asmoekin jarraitu nuen entrenatzen baina egia da motibazioa ez dela berdina. Abuzturaino sasoi mantentzen saiatu nintzen, pisu asko ez hartzen, abuztutik aurrera zerbait aterako zeneren itxaropenarekin. Team Ukyo atera da eta pozik.

### Nola zaude? Sasoi? Sentsazio onekin?

Negu nahiko kaxkarra izan dugu ongi entrenatzeko. Nahiz eta Granadara, Sierra Nevada 15 egun entrenatzea joan, Murtzian ere prestatzen egon, eguraldiak ez digu utzi guk nahi bezala entrenatzen eta horrela sasoi tope topera izatea oso zaila da. Nahiko genukeena baino pixka bat moztango ailegatuko gara baina lasterketak hasi ahala espero dugu lehenbailehen ongi jartzea.

bidapenak lortzen ditugun eta lasterketa horietan parte hartzeko aukerarik dudak” gaineratu du.

**Pablo Urtasunen palmaresa** Profesionaletan 5 garaipen ditu Urtasunek: 2013an Gaztela Leongo

lehen etapa irabazi zuen, 2012an Bretainia Handiko Tourreko 7. etapa, 2010ean Asturiaseko Itzuliko lehen

etapa, 2008an Sotavento Algarviko Voltako 2. etapa eta 2008an Asturiaseko Itzuliko 5. etapa.

## Mendia

## Dima-Baltzola Sakanako Mendizaleekin

**Igandean goizeko 7:00etan aterako da Irurtzundik autobusa**

Sakanako Mendizaleak taldeak hilerro mendira irteera antolatzen du. Hurrengo irteera igandean izanen da, eta gure mendizaleek Bizkaia aldera joko dute. Dimatik abiatuta Baltzola kobazulo bitxira iristea da asmoa, eta tartean mendira ibilaldi eder-egitea.

Autobusa igandean goizeko 7:00etan abiatuko da Irurtzundik, herriz herri izena eman duten mendizale guztiak hartzeko

### IZENA EMATEKO

Ohiko tokietan, osteguna baino lehen. Ondoren, 639 117 631 telefonoan.

## Txirrindularitza

# Asier Ormazabal Fustek Lizarte taldera egin du salto

## Txirrindulariak

Javier Ruiz de Larrinaga, Antonio Pedrero, Rafael Markez, Santiago Ramirez, Raul Martinez, Jorge Arcas, Jon Armendariz, Mikel Ezkieta, Luis Pascual, Mikel Azkoti, Marcos Rojo, Mark Muñoz, David Calmaestra, Oscar Rodriguez, Beñat Ezkieta, Josep Arnau, Sergio Samitier, Hector Carretero, Jaime Castrillo, Martí Marquez, Asier Labairu, Gabriel Irisari, Tomas Trestrepo eta Asier Ormazabal.

**Zuzendariak:** Juanjo Oroz eta Iraia Izkue.

Herriko egutegian lehiatuko da, eta baita Frantziar eta Espainiar estatuetako zenbait probatan.

“Taldea honek handitzen jarraitu behar du. Txirrindulariak trebatzen jarraitu behar dugu, eta denboraldiko lasterketetan garai-penak lortzeko borrokan sartu” nabarmendu zuen Azconak.

Txirrindulari berrien artean dago Burunda Txirrindularitza Taldeko Quesos Albeniz talde jubeniletatik Lizarte afizionatuera salto egin duen Asier Ormazabal Fuste ziordiarra. Bere helburua afizionatuen kategoriarako egokitzeta da. Zortetik onena opa diogu.



Asier Ormazabal Fuste.

## Diru-zorroek duten genero zuloa

**Emakumezkoen ekonomia-autonomiari buruzko hausnartzera gonbidatzen duen erakusketa Altsasuko Iortia kultur gunean, astelehenetik martxoaren 8ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara**

**D**irua gordetzeko balio duten Euskal Herriko eta munduko 50 diru-zorroek osatzen dute *Diruaren sexu ezkutua* erakusketa. Gizarteko esparru guztietako diru-zorroak dira ikusgai izanen direnak. Batzuk XVIII. eta XIX. mendekoak dira. Guztiek dute ahoa, dirua sartu eta ateratzeko. Eta guztiek dute zulo bat, ikusezina. Generoarena.

Diru-zorroak elementu sinboliko gisa hartuta, "generoko zuloatik" ihes egindakoa agerian utzi nahi du erakusketak. Izan ere, gizonezkoek eta emakumezkoek arrazoi soziokulturalengatik diruaren erabilera ezberdina egin baitugu orain arte; gizonezkoek "diru handia" kontrolatu izan dute, emakumezkoek, berriz, "diru txikia, txanponak", hau da, etxeko ekonomia.

Emakumezkoen ekonomia-autonomia denboran zehar nola ehundu duten ikusteko aukera ematen du erakusketak. Diru-zorroak, aldi berean, euskal emakumezkoen memoria historikoa berreskuratzeko balio du; ekonomiaren sortzaile gisa eta poltsiko diruaren erabiltzaile gisa azaleratuko zaigu. Diru-zorroen atze-



an dauden emakumezko euskaldunen istorio "esanguratsu, erreala eta indartsuak" jaso dira. Historia-memoria jasotzeko beste modu bat. Haurralde fundazioak sortu du erakusketa, garapena sortzen duten emakumezkoak proiektuaren barruan.

### Dokumentala

Erakusketarekin batera, Iortia kultur gunean Haurralde Funda-

zioak zuzendu eta filmaturiko dokumentala ere ikusgai izanen da: *Larre motzean*. Lan horrek Euskal Herriko garapenean lagundu duten emakume ezezagunen istorioak biltzen ditu. Dokumentala baserrietako bizitza ezagutzera gonbidatzen du ikuslea; egunentititik iluntze arte, lana, ametsak denbora gutxi dute amestua izateko, eta bizitza, erditze, uzta, bizitza eta heriotzen artean igarotzen

### Ikasleak

Erakusketa eta dokumentala Iortia kultur gunean dauden bitartean Altsasuko ikastetxeetako DBHko ikasleek haiek ikustera pasako dira. Haurralde fundazioak unitate didaktiko bat prestatu du eta horren inguruan ariko dira. Erakusketa joan den urtean ekoiztu bazuten ere, hari lotutako unitate didaktikoa aurtentzara sortu dute eta Altsasun mustuko dute.

da. Emakumeen eskutik burututako, aurkeztutako, grabatutako eta ekoiztutako dokumentala; Haurralde Fundazioak zuzendu eta filmatua.

## bazterretik

Laida Aldaz Arrieta

### El Trastero Creativo

Duela hilabete batzuk "Aldaketarako Garaia" izeneko idatzian dantza garaikideak heziketa mailan dituen arazoak berri ematen nizuen. Gaur, egoera hau aldatzeko sortu dudana "El Trastero Creativo" izeneko proiektua azaldu nahi dizuet. Proiektu honen bitartez Nafarroara ospe handiko nazioarteko artistak erakarriko ditut hemengo dantzariari kalitateko entrenamendua eskaintzeko. Lan-tegi baten bitartez teknika berriak bereganatzeko aukera edukitzeaz gain, lurralde eta hiri desberdinetatik datozen dantzarien kultur-trukea bultzatuko da.

Bestalde, dantza garaikidea sustatzeko helburuarekin ikuskizun bat ere antolatu dut, non artista gonbidatuaren lana zuzenean gozatzeko aukera edukiko dugun. Emanaldi honen ondoren, hitzaldi baten bitartez bere bizitza eta lana ezagutuko dugu, eta ikuslearen galderak erantzuteko prest egongo da.

David Zambrano goren mailako artista izango da Nafarroara erakarriko dudana lehenengo. Inprobisazioan duen jakituria eta "Flying Low" teknika sortu eta garatzeagatik dantza munduan nazioarte mailan aski ezagun dena. Zambranok eskola eta dantza talde ospetsuenetan irakatsi du, bere lanak munduan zehar erakutsi dira eta Guggenheim Fellowship 2010 saria jaso du beste askoren artean.

Ikastaroa Atarrabiako Kultur Etxean burutuko da apirilaren 13tik 17ra, goizeko hamarretatik eguerdiko ordu biak arte. Ikustaldi-hitzaldia ordea, apirilaren 15ean arratsaldeko zazpietan Gayarre Antzokian egingo da. Atarrabiako Kultur Etxea eta Gayarre Antzokiak dute azpiegitura utzi digute lan baldintza ezin hobeetan lan egin dezagun.

Diru laguntzek jasan dituzten murrizketak ikusita, proiektu hau nere eskutik finantzatzea erabaki dut. Jendearen erantzun baiezkorra oso aberatsa izaten ari da. Epostatan argi eta garbi adierazten dute proposamen berrien beharra.

Edozein informazioa eltrastero-creativo@gmail.com epostaren bidez jaso dezakezue eta Gayarren egingo den erakustaldirako sarrerak antzokiko web orrian salgai daude dagoeneko. Kulturra hobetzeko proposamenen alde bazaudete, hauduzue aukera ederra eta interesgarria.

## Maparako soinu bila

**H**alaxe ibili ziren larunbatean Olatzagutiko herri inauterian Iñigo Telletxea eta Xabier Erkizia. Bina mikrofono handi eta grabagailua aldean zutela, inauteri olaztiarraren soinu testigantza jaso zuten. Eta horiek dagoeneko [www.soinumapa.net](http://www.soinumapa.net) web orrian entzungai daude. Baina ez soilik larunbatekoak, web orri horretan Sakanan hartutako 18 audio daude entzungai: Uharteko Arakilgo 1, Unanuko 5, Etxarri Aranazko 3, Urdaingo 1, Altsasuko 5 eta Olatzagutiko 3.


Soinu Mapa hala definitzen dute: "fonografia edo gure inguruko hotsak grabatzeko artea oinarritzat hartuz, soinuak landa-grabaketak erakutsi, kontsultatu eta elkartrukatzeko xede duen sare plataformak da. Etengabe on-line sortzen den eta on-line bizi eta handitzen den soinuaren artxibo ireki bat da".



Web gunean Euskal Herrian egindako hainbat grabaketa entzun daitezke, haiei dagokien informazioarekin hornituta. "Aldi berean, soinuak memoria bilduma interesgarri, aberatsa eta publi-

koa osatzen dute" Soinu Mapa grabazioek. Edozeinek egindako grabazioak soinu mapan tokia dutela jakinarazi dute. Gainera, ekarpen guztiak Creative Commons lizentziarekin banatzen dira.

### Audiolab



Erkizia artista eta ekoizlearen zuzendaritzapean sorturiko egitasmoa da Soinu Mapa. Berau Audiolab soinu ikerketari eskainitako irabazi asmorik gabeko kultur elkartearen proiektu bat da. Elkartearen egitekoa "egungo gizartean soinuaren kultura" sustatzea da. Entzumenari buruz eta entzumena-ekin lan eginez, alor artistiko, dokumental, ikertzaile, sozial edo antropologikoen arteko mugetan aritzen da, haien arteko elkarlana sustatzen.

# Lakuntzan erabakiko dira Nafarroako Bertsolari Txapelketako final-erdiak

**Igandean, 17:30ean, kultur etxean jokatuko da azken final laurdena. Eneko Lazkoz ariko da kantuan**

**N**afarroako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetako azken bi saioak asteburuan jokatu dira, bihar Lizarran eta etzi Lakuntzan. Bi saioetan puntu gehien pilotzen duten bertsolariek final-erdietarako zuzeneko txartela eskuratu dute. Gainontzeko guztiek pun-

tuazioari erreparatu beharko diote lehiaketan aurrera edo atzera egin duten jakiteko.

Igandean Lakuntzan bertsotan ariko diren sei bertsolariak ondoakoak dira: Eneko Lazkoz, Xabier Maia, Ioar Tainta, Patxi Castillo, Iñigo Olaetxea eta Xabier Terre-

## Sarrerak

[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atariaren bidez eskuratu daitezke.

ros. Saioa aurkezten Mainer Ansa etxarriarra ariko da.

## Beltzari sailkapena zaildu zaio

Zubirin final laurdenetako hirugarren saioa jokatu zen igandean Sei bertsolariek lan txukuna egin zuten. Aimar Karrikak lortu zuen puntu gehien eta final-erdirako txartela.

Bardoak Nafarroako Taldeko Bertso Ekimeneko bi edizioe-

tan parte hartu du Joseba Beltza Bengoetxeak, 2012koan, gainera, Bilixkorriko taldearekin finalera iritsi zen. Baina etxarriarrak Nafarroako Bertsolari Txapelketan azkeneko 2006an parte hartu zuen. Bederatzi urteren ondoren 223,5 punturekin seigarren sailkatu zen Beltza.

Asteburuko bi saioen emaitzen zain gelditu da etxarriarra, lehiaketan aurrera eginen duen edo ez jakiteko. Sailkapen orokorrean



14. dago. Egoera berean daude Oier Lakuntza Irigoien eta Josema Leitza Razkin, 1. eta 11. hurrenez hurren.

# Loreak San Franciscon

**Manolita Thundersen erakusketa apirilaren 12ra arte ikusgai dago Bilboko La Viña tabernan**

**A**urreko ostegunean mustu zuen margolari altsasuarra bere erakusketa, lagun "talde majo bat" ondoan zuela. Erakusketa jarri aurretik taberna bisitatu zuen margolariak eta neurri batean erakusketan eragin zuela esan digu. "Porlana, autoak, eraikuntzak... San

Franciscoerdian natura falta zegoela iruditzen zitzaidan. Natura hirierdira eramanez nahi izan dut". Sortzaileak aitortu duenez, "natura da nire betiko gaia, inspirazio iturria, horretara eramaten nau".

Hala *Loreak* izenburua eman dio erakusketari. Hura sortzeko lan ildoak "loreak eta armiarmen lan egiteko modua izan da". Tamaina ertaineko sei obrek osatzen dute erakusketa. Teknika mistoarekin ondutako lanak

dira. Haria, artilea, CD-ak, akrikoa, tinta eta burdina erabili ditu haiek egiteko. Batzuk pintura eta eskultura arteko bidegurutzean kokatu ditu Manolita Thundersen.

Lastailean erakutsi zuen bat izan ezik gainontzekoak erakusketarako propio sortutako lanak dira. "Duela bi urte CDekin lan bat egin nuen eta hor nituen batzuk erdi eginak eta haiekin lanean segitzea otu zitzaidan. Loreak,



armiarmen lanak agertzen hasi ziren. Lan koloretsuak" kontatu

digu erakusketarekin pozik dagoen Manolita Thundersen.

# Ikusle eguneko sarituak

**Altsasuko Iortia kultur guneko ostegunetako 19:00etako zinema emanaldietara joateak sarien zozketan sartzen du ikuslea**

**I**kuslearen eguna da osteguna Altsasuko Iortia kultur gunean. 3 euroren truke ikusleak gaurkotatzen duen filma ikusteko aukera du. Eta zinema aretotik irtetean Xurruet elkarteko tabernaren batean trago bat hartzerakoan sarrera aurkezten badu, ikuslearen egunerako zinema sarrerak eskuratzeko aukera izanen du. Hala lortu dute M<sup>a</sup> Luisa Delfradek, Karlos Retegik, Esperanza Anzizarrek, Joakina Zubiriak eta Izaskun Etxeberrriak.

Aste batean sarrerak zozketatzen dira eta hurrengoan Altsasu-



ko Dendarien Elkartek emandako 20 euroko erosketa txartela. Hura elkarteko kide den dendaren batean gastatu behar da. Fernando Iglesiasek eskuratu du zozketatutako azken txartela.

# Artisten txanda pasa birtuala

**S**ortzaile batetik bestera txanda pasatzen ari dira Facebook sare sozialean. Egile batek beste bati erronka luzatzen dio: bost eguneko egunero bere obra bat igo behar du bere profilerara eta, aldi berean, beste sortzaile batzuei hurrengo asterako txanda pasatzea proposatzen du.

Katea Sakanara iritsi da ere. Uharteko Arakilgo Miren Ustarroz eskultoreak jaso zuen txanda eta haren obrak erakutsi zuen. Berak emandako txandaren bidez, Mari-txu Intxausti donostiarraren bidez iritsi zaio lekukoa Olatz Aldasoro etxarriarrari. Bera aritu da egun hauetan bere lana jendaurrean ematen.

Aldasorok esan digunez, "artista hitza bera arrotza egiten zaie-nei ere bere lanaren aitortza egiteko balio dezake txanda pasa honek. Pixka bat artista sentitze-ko". Pintura edo eskulturaz aparte bestelako arte adierazpenetarako ere erakusleho ederra dela uste du Aldasorok. Sortutako Interneteko katea sortzaileak batzeko bide bat izan litekeela aipatu du etxarriarrak. Aldasorok Anaitz Igoa, Kitz Mendiola eta Laida Aldazi luzatu die txanda. Itziar Nazabalek beste alde batetik ere jaso du. Bitartean jarraitzaileen iruzkinak irakurtzeko aukera ere badute txandakako egileek.



**Amaya**  
Okindegia-gozotegia

**ARAIA** 945 314 572

**ALTSASU**

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolata - pastak - bonboiak...



**ALTSASU**



**OLAZTI**

948 468 755



**ETXARRI**

948 461 660

# Hau ez da oraindik bukatu!

## HIRIBERRI

### Aitittarkok sutan bukatuko du

Hiriberrin larunbatean ospatuko dituzte inauteriak. Maider Uhartek kontatu digunez, Ihabarko ihoteei buruzko istorio bat topatu dute eta informazio horretan oinarrituta goizean herri ihoteak ospatuko dituzte. Horrela, 12:00etan momoxarroak bilduko dira plazan, aitittarko ondoan dute. Trikitixaren laguntzarekin buelta emango diote herriari eta momoxarroak euren erratzekin herritarrak izutzen eta astintzen saiatuko dira. Ondoren, aitittarkok sutan bukatuko du. 14:30ean mozorrotuen ihote bazkaria hartuko du Txitera elkarteak. Mozorratzeko gai bat zehazten dute urtero, eta aurtengoa pertsonaia historikoak izanenda. Horrela, bazkaltzera pertsonaia historikoz mozorrotuta agertuko dira Hiriberrikoak. Bazkalondo animatuek ez damus txapelketarik faltako. Eta festa afariarekin borobilduko dute askok.

## IHABAR

### Moxorroak, Aitezarko, landarra, ninia eta hartza protagonista

Bi eguneko ihote ospakizunak bihar hasiko dituzte Ihabarren. Gazteak 11:00etan bildu eta baserritarrez jantzita, puska biltzea eginen dute. Gazteek jasotakoa ospakizunetako bi egunetako Gure Kabiya elkartearen eginen dituzten bazkarietarako izanen dira. Bihar, esaterako, bazkaldu ondoren, moxorroak etxez etxeko erronda eginen dute, 18:00etatik aurrera. Bidean opatzen dituztenak zigorrek berotu eta bestelakoekin zikintzeari ez diote utziko. Errondaren ondoren, 22:00etan herri-afaria eta dantzaldia izanen dute. Etzi, berriz, gazteak bazkaltzera bilduko dira. Iluntzearekin batera, Aite-

zarkoa, Landarra, Ninia eta Hartzak osatzen duten familia herrian agertuko dira. Eta haiekin batera moxorroak. Txistulariak lagun kalejira eginen dute, Aitezarko gaiztoa sutara bota eta landarraren negarrak entzungo dira Ihabarko kaleetan. Bukatzeko otamena izanen da.

## ALTSASU

### Mozorro gehiago

Bihar altsasuar koadrilek ezohiko itxura emanen diote euren herriari. Mozorrotu eta eguerditik aurrera festarako prest izanen dira, baita kanpotik heldu direnak ere. Festa giroa sortzeko eta herritarrak kalera ateratzeko gaur bertan eskuz binakako txapelketako partida dago Burunda pilotalekuan, 22:00etan.

#### >> Otsailak 21, larunbata

**13:00etan** Dantzaldia Sakaranga txarangarekin, Foru plazan.

**18:00etan** Piñata jaitziera Sakaranga txarangarekin, Zumalakarregi plazatik.

**20:00etatik 22:00etara** Mozorro dantzaldia Kresala taldearekin.

**21:00etan** Gazte afaria, Intxostiapunta gazte gunean.

**22:00etatik 24:00etara** Gazte festa, Intxostiapunta gazte gunean.

**00:00etatik 3:00etara** Mozorro dantzaldia Kresala taldearekin.

## OLATZAGUTIA

### Koadrila mozorroen txanda

Zamarraundiak, zamartxikiak, maskaritik, iratxoak, damaketasorginak aurreko larunbatean herriko kaleetan barna ibili baziren, biharko antxanda lagun koadrilek hartuko dute. Mozorroa eta animatuek baita gurdia prestatzen denbora eman ondoren, haiekerakusteko garaia iritsi zaie.

#### >> Otsailak 22, larunbata

**12:00etan** Mozorrotu koadrilen segizioaren kalejira, arto futbol pistatik.

**14:30ean** Herri bazkaria, frontoian.

**17:00etatik 20:00etara** Baralde fanfarrea.

**20:00etatik 22:00etara** Mozorro dantzaldia.

**00:00etatik 3:00etara** Mozorro dantzaldia.



ARRUAZU



UNANU



ALTSASU



ARBIZU



ITURMENDI



Hau ez da oraindik bukatu!

Argazki galeria guztiak: [www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en)



SAKANAKO INAUTERIAK 2015>> Hau ez da oraindik bukatu!



Hau ez da oraindik bukatu!



SAKANAKO INAUTERIAK 2015>> Hau ez da oraindik bukatu!



Hau ez da oraindik bukatu!



TXARRI ARANATZ



IRURTZUN



ITURMENDI



OLATZAGUTIA



LAKUNTZA



OLATZAGUTIA



UHARTE ARAKIL



UHARTE ARAKIL



OLATZAGUTIA



ALTSASU



ITURMENDI



LAKUNTZA

SAKANAKO INAUTERIAK 2015>> Hau ez da oraindik bukatu!



ARBIZU



LIZARRAGA



OLATZAGUTIA



BAKAILU



UHARTE ARAKIL



URDIAIN

Kintoak



Uharte Arakilgo kintoak.



Lakuntzako kintoak.



Arbizuko kintoak.



Etxarri Aranazko kintoak.

Hau ez da oraindik bukatu!



UNANU



ALTSASU



ETXARRI ARANATZ



URDIAIN



IRURTZUN



ITURMENDI



LAKUNTZA



ZIORDIA



OLATZAGUTIA



UNANU



ARBIZU



ETXARRI ARANATZ

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 48%	euria: 99%	euria: 73%	euria: 55%	euria: 97%	euria: 98%	euria: 96%
Min: 2 Max: 8	Min: 2 Max: 3	Min: 1 Max: 6	Min: 3 Max: 8	Min: 3 Max: 5	Min: 3 Max: 7	Min: 3 Max: 9

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	11.5	0	64.5
Etxarri A.	12.6	-2.9	62.9
Altsasu	11	0	77.3
Aralar	3.4	-3.9	62.6
Urbasa	-	-1	51.1

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
25	5	13	20

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Otsaileko

## bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gazte zulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Katziporreta materiala.

2. 3. 4. SARIA: Gazte zulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Katziporreta materiala.

>> 11

galdera

Montse Moyano

Kume zentroko sortzailea

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano



# etxean goxo-goxo egongo gara

## altzariak dekoratzaileak margolariak aseguruak...

martxoaren 13an eraikuntza+etxebitza gehigarria zure publizitatea hemen: 948 564 275

**1. Nola sortu zen Kume bezalako zentro bat sortzeko ideia?**  
Hamasei urte daramatzat kirolaren munduarekin harremanetan. Kiroldegi ezberdinetan klaseak eman ditut, Araian, Etxarri-Aranatzen, Arbizun, eta Altsasun esaterako. Bestalde, ama bi aldiz izan naiz, eta haurdunaldietan behar ditugun gauza asko antzemateko balio izan dit. Erditze momentua iritsi baino lehen prestaketa ikastaroak daude, baina hortxe gertatzen da dena. Haurdun egoteaz gain milaka gauza egin daitezke, eta horretarako espreski prestatzen diren ikastaro eta tailerrak daude. Eta hortik sortu zen ideia.

**2. Zergatik Kume izena?**  
Kume, emakume hitzaren erdia da. Zergatik erdia? Gizonezkoak ere etor daitezkeelako. Horrela erabaki genuen. Gizonezko batzuek ekin-tza fisikoa egitea gustuko dute eta hona gerturatzen dira, edota fisioterapeutarengana ere etor daitezke, edota disfunczio sexuala pairatzen duten gizonendako zoru pelbikoaren trataera oso gomendagarria da. Logotipoan bi bihotz eta kiribiledota espiralak irudikatu ditugu. Jaiotza bihotz txikiarekin irudikatzen dugu eta amarena bihotz handia da. Espiralek, berriz, bizitza irudikatzen dute.

**3. Non dago Kume zentroa?**  
Etxarri Aranatzen, Larrañeta kaleko 2. zenbakian. Areto nagusi bat dugu klase bideratuak emateko, eta beste bi gela. Bata fisioterapiarako erabiltzen da eta beste emaginak erabiltzen du.

**4. Nori zuzenduak daude zentroko ekintzak?**

Sei eta zazpi urteko umeak etortzen dira adibidez zumba egitera, baina hortik aurrera nahi duena gerturatu daiteke. Tailer, eta ekin-tza guztiak publiko zabalari irekitzen dizkiogu.

**5. Zerbitzu ugari dituzue. Zer eskaintzen du emaginak?**  
Emaginaren eginkizuna oso garrantzitsua da. Gai ezberdinak landu daitezke bere kontsultan, hala nola, haurdunaldia, erditzea eta erditze ondokoa, edoskitzea, jaio aurreko prestakuntza, sexualitatea, kontrazepzioa, menopausia etab. Honetaz gain ere, porteo tailerra dagoeneko hasi da eta edoskitze kolikoen inguruko beste tailer bat hasiko dugu.

**6. Eta fisioterapia zerbitzuak?**  
Batetik fisioterapia arrunta izanen genuke, gihar edota mugimenduak tratatzen dituen, eta fisioterapia neurologikoa, gaitz neurologikoen zerikusia duten tratamenduak lantzen dituen. Honetaz gain, zoru pelbikoaren fisioterapia izanen genuke. Azken honek hainbat patologia saihesten ditu, erdiondokoa eta erditze aurrekoa, menopausia, txizari ezin eustea. Oso lagungarria da. Honetaz gain, haurdunazko masajeak eskaintzen ditugu.

**7. Klase bideratuak ere badituzue.**  
Bost klase bideratu eskaintzen ditugu: haur eta helduendako zumba, hipopresiboak, esferodinamia, K-stretch eta Tonibar. Hipopresiboan gihar kateen barnean pelbizorua indartzea helburu duten jarrera ariketak egiten dira. Esferodinamian baloi handi batzuk erabiltzen dira, indarra, oreka eta koordinazioa lantzeko. K-stretch-

a gorputz-jarreraren berreziketarako metodoa da, oso lagungarria bizkarra eta lepoko minendako. Eta Tonibarrekin, gure gorputza modu integralean landu eta tonifikatuko dugu eta indarra eta oreka hobetzeko aukera izanen dugu.

**8. Mendebaldeko mundutik irteten diren teknikak ere lantzen dituzue?**  
Txinako medikuntza tradizionalari tarte bat egin diogu. Naturaren oinarriko legeak betetzea eta ezagutzea dira Txinatar medikuntzaren oinarri filosofikoak. Gure organismoak eta naturak elkarreragin handia dute, hortaz tratamenduek ere harreman estua dute ideia hauekin. Akupuntura zerbitzua eskaintzen dugu ere. Hauxe txinatar medikuntza tradizionalaren teknika bat da. Min kronikoak, kontrakturak, lesioak edota gripea bezalakoak tratatzeko erabiltzen da. Mina arintzeko oso lagungarria da.

**9. Zenbat denbora daramazue?**  
Abenduaren 7an mustu eta 10ean ireki genuen.

**10. Jende asko gerturatu al da?**  
Oso pozik nago, gutxinaka geroz eta jende gehiago gerturatzen ari delako. Ordu-tegiak moldatu egiten ditut bertaratzen diren denbora libreari egokitzeko.

**11. Nola jarri gaitzke kontaktuan zuekin?**  
Zentrorra hurbildu edo gurekin harremanetan jarri (centro-kume@gmail.com edo 664 361 166 telefonoan). Bestalde, sare sozialetan webgune berezi bat prestatu dugu edonork ikus dezan.